

Arrazakeria eta kulturartekotasuna nerabezeroan eta bigarren hezkuntzan



Hezkuntza
diagnostikoa

2022



SOS ARRAZAKERIA GIPUZKOA

Hezkuntza Saila

Ikerlariak

Huarte Gonzalez, Ines

Mendizabal Goikoetxea, Maddi

Arruti Irigoyen, Beñat


Montuschi Mujika, Garazi

Aurkibidea

1. Sarrera	p. 04
2. Justifikazio teorikoa: Aniztasun kulturala eta arrazakeria Euskadiko bigarren hezkuntzako ikastetxeetan	p. 06
2.1. Kulturen aniztasuna hezkuntza testuinguruan, begirada azkar bat	
2.2. Eskola segregazioa	
2.3. Klase soziala, arrazakeria eta bazterkeria eskola testuinguruan	
2.4. Nerabezaroa, gorrotoa diskurtsoak eta talde harremanak	
2.5. Online gorrotoa eta gaztea	
2.6. Kulturen aniztasuna hezkuntzan lantzeko baliabideak	
3. Helburuak eta metodologia	p. 13
4. Emaitzen azterketa	p. 15
4.1. Hezkuntza arloko profesionalen ahotsak. Elkarrizketa erdi egituratuaren emaitzak	
4.2. Gazteen begirada arrazakeria eta kulturartekotasunarekiko. Ikasleek erantzundako galdeetegiaren emaitzak	
4.3. Arrazakeria, kulturartekotasuna eta hezkuntza. Hezkuntza arloan adituen eztabaida taldeko emaitzak	
5. Ondorioak	p. 32
6. Iturri bibliografikoak	p. 34

Sarrera

1



Txosten honetan “Hezkuntzari Bira Kanpora Begira: ikasgeletatik errealitatea eraldatzeko ikerketa ekintza parte hartzailea” proiektuaren diagnosi faseko emaitzak aurkeztuko dira.

Gure lurraldeetako ikastetxeen egungo hezkuntza errealitatea ezagutu nahi badugu, aniztasun kulturala eta arrazakeria eta anti-arrazismoari dagokionean bereziki, azterketa sakon bat egitea ezinbestekoa da, eskola errealitatea aztertzeaz gain, bere garapenerako testuingurua ere kontuan hartuz. Txosten honen helburua hezkuntza errealitatearen diagnostiko eta marko gisa balio izatea da, zeinetan hezkuntza zentroek arrazakeria, kulturartekotasuna eta giza eskubideen esparruan dituzten beharrak eta erronkak testuinguruan jarriko diren.

Aldi berean, pertsona gazteekin esku hartzea, prebentzioaren arloan eta komunikazioa, pertsonarteko harremanak eta hausnarketa hobetuko duena, funtsezkoa da aniztasunean elkarbizitza eta gizarte kohesioa sustatzearren. Horretarako, gazte eta nerabeen esperientziak, ideiak, iritzi, sentimendu eta sinesmenak kontuan hartzea ezinbestekoa da. Beren eguneroko bizitzako dilemei erantzuna eman, hausnarketa eta pentsamendu kritikoa estimulatu eta errespetu eta berdintasunean oinarritutako elkarrizketa bat sortzea helburu izanik.

Horrela txostenaren egiturari hasiera emateko ikerketa objektua izango den gaiaren testuingurua eta marko teoriko bibliografikoa garatuko dira; ondoren, ikerketaren helburuak eta diseinu metodologikoa azalduko dira; jarraian prozesuan zehar lortutako analisi eta emaitza nagusiak aurkeztuko dira; bukatzeko ondorio orokorrak islatzeko atal bat egongo da, etorkizunerako lan ildoak marraztuko dituen.

Justifikazio teorikoa

arrazakeria eta aniztasun kulturala bigarren
hezkuntzako ikastetxeetan

2



2.1 Kulturantzitasuna hezkuntza testuinguruan

Begirada azkar bat

Euskal Autonomia Erkidegoko kultur aniztasunari buruzko azterketa soziodemografikoari ekiteko, azken bi hamarkadetan izan den bilakaera azter dezakegu. Ikuspegiko (2021) datuen arabera, 2001. urtean, EAEn jatorri atzerritarra zuen biztanleen kopurua 43.823 pertsonakoa zen, horietatik 12.428 Gipuzkoan bizi zirelarik. Aldiz, 2021ean kopuru hori ia sei aldiz handiagoa zen, zehazki 247.784 pertsonakoa, Gipuzkoan bizi zirenak 81.692 izanik, hortaz jatorri eta kultur aniztasuna azken 20 urteetan aberasten joan dela esan daiteke eta ikuspuntu historiko batetik migrazio gaztea dela gurean duguna. Halaber, pertsona hauen jatorria anitza da ere; 2021ean %51 latinoamerikarra zen, %14,8a Europar Batasuneko herrialdeetatik etorritakoa eta %14,2a magrebiarra, besteak beste.

Zehazki gure aztergai den hezkuntza komunitatera erreparatuta, EAEko hezkuntza ereduak aztertuz gero eta Bigarren Hezkuntzako ikasleetara mugatuta, 2017-2018ko datuen arabera, eskolaratutako 81.249 ikasleen %83,9a EAEn jaioa da, %5,3a Estatuan jaiotakoa, baina, guraso atzerritarren bat duena eta %9,3a atzerrian jaioa. Sare publiko eta pribatuaren arteko ezberdintasunei begira, publikoan jatorri atzerritarra duten gurasoren bat duten ikasleak %7,1 dira eta %10,9 atzerrian jaiotakoak direnak. Itunpeko ikastetxeetan aldiz, %3,7 dira jatorri atzerritarreko gurasoren bat duten ikasleak eta %7,9 atzerrian jaiotakoak (Ikuspegi, 2018). Hortaz, sare publikoan jatorri atzerritarreko ikasle kopuru handiagoa aurkitzen da bigarren hezkuntzako ikastetxeetan, ezberdintasuna txikia izanik. Datu hauek aniztasunaren dimentsioa

esanguratsua dela mahaigaineratzen digute eta horrela izaten jarraituko duela etorkizunari begira ere.

Hizkuntza aukeraketari dagokionean, aipatzekoa da, hezkuntza ereduari begira, Gipuzkoako ikastetxe guztietatik 150 publikoak direla eta beste 86 itunpekoak. Publikoen artean, ez dago ikastetxerik A ereduaren dutenik, %97,4a D ereduaren izanik. Aldiz, itunpeko ikastetxeen %5,2ak A ereduaren eskaintzen du, baina, hala ere, gehienek D ereduaren dute, %79,4ak hain zuzen ere. Hori horrela, matrikulatutako ikasle guztien %50,2a sare publikoan dago eta beste %49,8a itunpeko sarean (Ikuspegi, 2018).

Hezkuntza ereduaren kontuan hartu beharreko datua da jatorri atzerritarreko ikasleen banaketa ulertzerako orduan, izan ere, Bigarren Hezkuntzan, “bigarren belaunaldikoak” diren ikasleen erdia baino gehiago (%60), D ereduaren dago matrikulatua, aldiz atzerrian jaiotakoaren %43a soilik aurkitzen da guztiz euskaldunak diren ereduaren, honek hizkuntza integrazioan izan dezakeen eragina erakutsiz. B ereduaren, bigarren belaunaldikoaren %2,6a eta atzerritarren %31,4a eta A ereduaren %13,4 bigarren belaunaldikoaren artean eta %25,3 atzerritarren artean, hurrenez-hurren (Ikuspegi, 2018). Kontuan hartzekoa da, dena den, hizkuntza ereduaren araberrakoa banaketa ere ezberdina dela lurralde historikoen arabera.

Hori horrela, Ikuspegik (2018) Gipuzkoako ikastetxeetan egindako ikerketa batean ikusi den modura, sare publikoan eskolaratuak dauden ikasle atzerritarren %60ak ez du gaztelania beraien lehen-hizkuntza edo ama-

hizkuntza modura. Itunpekoetako ikasle atzerritarrek aldiz, %50-60a inguruk du bere lehen-hizkuntza modura gaztelania.

Zentzu berean, hizkuntza aniztasunari erlazio eginez, ikerlan batean ikusi zen moduan, Gipuzkoan 130 hizkuntza inguru hitz egiten dira, gehien erabilien artean arabiera, amazigera, errumaniera, portugesa, urdua, punjabera, kantonera edota frantsesa topatu genitzakelarik (Uranga, 2021). Ez dugu aurkitu ikastetxeetan dagoen hizkuntza aniztasunari erreferentzia egiten dion daturik.

Ikasleen jatorri aniztasuna aztertzen badugu, Estatuko Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak (2022) 2020-2021 ikasturtean argitaratutako datuen arabera, Gipuzkoako ikastetxeetan zehazki, 1.908 Hego Amerikarrak ziren, 2.401 erdialdeko Amerikarrak, 2.754 Afrika Iparraldetik etorritakoak eta beste 2.047 Europar Batasuneko herrialderen batean jaiotakoak. Aipagarria da, ikasle hauen gehiengoak sare publikoan ikasten duela.

Hortaz, gure jendartearen bezala, hezkuntza sistemaren ere aniztasuna agerikoa dela argia da, bai ikasle eta familien jatorri, hizkuntza, baita maila sozioekonomikoari dagokionean ere. Honek guztiak kudeaketa parekide eta inklusiborako hainbat erronka suposatzen dizkio hezkuntza sistemari orokorrean eta ikastetxeei eta hauetan lan egiten duten profesionalari zehazki. Izan ere, aniztasuna agerikoa den arren, eskola inklusiboa, parekidea, ekitatiboa, euskalduna, etab. epe luzerako helburu gisara ikusten dira oraindik ere.

2.2 Eskola segregazioa

Aipatzekoak eta kezkarriak dira eskola eta kultura segregazioari buruz Save the Childrenek (2018) eginiko azterketan ateratako ondorioak. Izan ere, EAEko segregazio indizea Espainiar Estatuko altuenetakoa dela erakusten du, 0,27koa hain zuzen, eta kontuan izanda Estatuko batz bestekoa 0,31koa dela, laugarren postuan kokatzen da Madril, Katalunia eta Errioxaren atzetik. Gainera, kontzentrazio maila altuko ikastetxeetan ikasleriaren %43a jatorri atzerritarreko

ikasleek osatzen dutela aipagarria da, 10etik 4 ikaslek baitute jatorria atzerrian ikastetxe hauetan. Honek aniztasunaren eta migrazioaren kudeaketaren inguruko gakoak ematen dizkigu, betiere zehaztuz eskola segregazioa jatorriaz haratago, estuki lotuta dagoela bizileku segregazioarekin eta biztanleriaren ordezkapenaren dinamikekin (Ikuspegi 2017; Massey eta Denton, 1988; Fullaondo, 2008).

Jatorriगतik ematen den segregazio eskolarra Espainiar Estatuko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan oso altua ez den arren, OCDE¹-arekin alderatuta, autonomia erkidego ezberdinen artean alde handia dagoela hautematen da, eta EAE kokatzen da jatorri atzerritarrगतik segregazio handien duten autonomien artean (Ferrer eta Gortazar, 2021).

Teoria eta ikerketa ezberdinek egiaztatu dute segregazioa eragiten duen hezkuntza sistema batek, edota inklusiboa ez den batek, haurtzaro eta gaztaroaren garapenerako aukerak mugatzen dituela, batez ere zaurgarrienak diren horien kasuan, eta gainera, ez dela eraginkorra. Hain zuzen, hezkuntza sistema hobek dituzten herrialdeak kalitate eta bikaintasunaz

gain ekitatearen aldeko apostua egiten dutenak dira (Save the children, 2018). Honek hezkuntza eskubidea bermatzea dakar, familia eta ikasleen egoera sozio-ekonomikoa ikasleen gaitasunen garapenerako oztopo izan ez daitezen, eta pobrezia eta ezberdinkeriaren ondorioak baretuz. Izan ere, segregazio eskolarra politika publikoen afera ere bada.

Jatorriगतik segregatutako ikastetxeei begira, ikasle segregatuen emaitzak okerragoak izaten dira ikastetxe gheztizatuetan, eta gizarte kohesioari so eginez, argi dago epe erdira izugarritzko galera dela bertakoak eta atzeritik etorri direnak bananduta haztea (Save the Children, 2018).

Save the Children-en txostenak (2018) ikastetxe segregatuen ezaugarri batzuk identifikatzen ditu: baliabide gehigarrien beharra, eskolaz kanpoko jarduera eskasak, ikasketetan laguntzeko baliabide gehigarrien urritasuna, irakasle espezializatuen ihesaldiekin arazoak, irakasleekiko inplikazio falta orokortua eta proiektu komun baten falta, irakaskuntza zailtzen duten oztopo ezberdinak (baliabide urritasuna, irakasle eta ikasleen jarrera...), besteak beste.

1. OCDE: *Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económicos. Economía Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea*

2.3 Klase soziala, arrazakeria eta bazterkeria

Ikuspuntu historiko batetik, klase arteko erlazioetan arrazializazioak izan duen eragina ukaezina da, eta honenbestez, arraza² ezinbesteko elementu bihurtu da gaur egungo baldintza ekonomiko eta sozialak ulertzeko orduan, baita norbanakoen kokapen espaziala ulertzerakoan ere (Margulis et al, 1999). Hezkuntza testuingurua, ez da inondik inora salbuespena, familien klase sozialak, jatorriak, kulturak eta baldintza sozioekonomikoek, neurri handi batean haur eta gazteen hezkuntza ibilbidea determinatuko baitu. Honen adibide dira aurrez aipatutako ikuspegiaren datuak, non, modu argian ikusten den, etorkinak diren familiek, behar ekonomikoak direla medio, beraien seme-alabak eskola sare publikora bideratzeko duten joera. Horrez gain, ikusi da hezkuntza zentroaren aukeraketa bertako ikasle etorkinen kontzentrazioak baldintzatuta dagoela, autoktonoak diren familia ugari etorkin populazio txikiko ikastetxeen aldeko apustua egiten dutelarik (Fouassier Zamalloa, 2017), segregazioa eta bereizketa potentziazatuz eta klase arteko ezberdintasunak bermatuz.

Honi lotuta, arrazakeria eta diskriminazioa erdigunean jartzea ezinbestekoa da, izan ere, gaur egungo hezkuntza testuinguruan agerikoak diren jokabide arrazistak dagoeneko onargarriak ez badira ere, egia da badirela oinarri arrazista duten eta maiztasun handiz ematen diren jokabide batzuk.

2. Arraza biologikoki existitzen ez den arren, desorekan dauden taldeen arteko erlazioek sortutako kategoriei egiten die erreferentzia, historikoki eta ontologikoki hutsik dagoen gizarite konstruktibaten arabera, irizpide fenotipikoen, kulturalen, linguistikoen, geografikoen, erlijiosoen eta abarren arabera, gizakiak identifikatzeko sortutakoak, ezberdintzeko, bereizketa prozesu konplexuen ondorioz.

3. CEDRE: Consejo para la Eliminación de la Discriminación Racial o Étnica.

Ildo honetatik, arrazaren edo kulturaren harira bideratutako neglijentzia, umorea, bazterkeria, ezberdintzea... oraindik onartuagoak diren erasoen adibide dira (Fox et al, 2005). Ikasleekiko tratu ezberdina, estereotipo eta aurreiritzien adierazpena irakasle, zein ikasleen partez; gutxieste akademikoa jatorri etniko edo nazionalak direla eta; espektatiba profesionalen baldintzatzea; ikasleen arteko irainak (jatorri, erlijio, azal kolore edo etnizitateari erreferentzia eginez); ikasleen arteko eraso fisikoak; burlak eta bromak; guraso arteko zurrumurruek; anitasuna oztopotzat hartzea, etab. aipatu izan dira eskola testuinguruan arrazakeriaz hitz egiterako orduan (Mayoral, Jiménez, Sassano eta Resino, 2020; Plaza, 2019; Fundación Secretariado Gitano, 2010).

Arrazakeria mota hau estereotipo eta aurreiritzietan oinarritutako sistema orokortuetan oinarritzen ohi da, pertsonen eskubideak murriztu edo ukatzea iristen delarik umorea, esaerak, justifikatu gabeko beldurren, paternalizazioaren, gutxiestearen eta beste diskriminazio metodo sinboliko eta fisikoen bidez. Arrazakeria mota honek, "sutila" gisara ere izendatua, aldiz, ondorio latzak izan ditzake honen biktima diren pertsonengan, baliabide eta balio sozialekiko eskubide eta sarbideen besteak beste, pertentzia, etab. aipatu daitezkeelarik (SOS Racismo Madrid, 2022).

Honen harira aipatzekoa da, 2018an argitaratutako ikerlan batek etorkinen seme alabek jasaten duten bullying-a 2015etaik 2017ra hiru puntuz igo zela ondorioztatu zuela, urte horretan eskola jazarpeneko kasuen %10etik gertu zegoelarik (Fundación Anar, 2018). Datu hauen eguneratzea interesgarria litzake eskola testuinguruan ematen diren diskriminazioen kontzientzia hartzeko. Hori guztia esanda, garrantzitsua iruditzen zaigu, pertsona baten azal kolorearen, ezaugarri arrazialen edo

bizi-istoriaren harira eginiko eraso oro, bullying-a baino, arrazakeria dela argitzea (Carapello, 2020; Monks et al, 2003).

Diskriminazioaren neurketa, jatorri, azal kolore edota jatorri kulturalagatik diskriminazioa barne hartuz, ezinbestekoa da honi aurre egiterako orduan baliabide, araudi etab.ak definitzeko. Horrela garrantzitsua deritzogu jatorri razial edo etnikoagatik diskriminazioa altuena dela diskriminazioaren inguruko pertzepzio azterlanetan, bai Europa mailan baita Espainiar Estatuan ere Eurobarometroaren arabera (Espainiar kasuan komunitate ijituaren parte izateagatik %65; identitate sexualagatik %58; azal koloreagatik %55; jatorri etnikoagatik %54; orientazio sexuala %54; aniztasun funtzionala %39 eta generoa %36) (Europako Batzordea, 2019), datu hauekin bat egiten du ere "Percepción de la discriminación en España (II)" txostenak (CIS, 2016). Ondorioz, Estatuan diskriminazio arrazoiz erberdinen artean jatorri arrazial edota etnikoari erreferentzia egiten diona nabarmenenetakoa dela.

Hezkuntza testuinguruari begira zehazki, jatorri arrazial edota etnikoengatik jasandako diskriminazioa aztertzean garrantzitsua da diskriminazio honen ikusmiran egon ahal izan diren pertsonen pertzeptzioa ezagutzea. Hain zuzen, CEDRE³-ren azken txostenaren arabera, inkesta erantzun zuten (N=850) pertsonen %20,1ak hezkuntza arloan beren jatorri etniko edo arrazialarengatik diskriminatutako sentitu izana adierazi zuen, 2013ko datuekin konparazioan zifra honek gora egin duelarik (%13 izan ziren 2013an). Ikerketa berak dioenez: "hezkuntza arloan diskriminazioak burla, irain eta jazarpen egoeren forma hartzen dute, baita joku eta jardueretatik baztertzear. Nabarmenezkoa da ekialdeko asiako populazioak matrikulaziorako oztupoak topatu izana adierazi duela maiztasun handiagoan" (CEDRE, 2020)

2.4 Nerabearoa, gorroto diskurtsoak eta talde harremanak

Nerabearoa, halaber, identitate eta sinesmenen eraikuntza garaia da, zeinetan pertsonok gure autokontzeptua definitzeko eta gure burua taldean kokatzeko beharraz jabetzen garen. Gainera pertsonaren balore sistema eraikitzeko garaia ere bada, eta horregatik hezkuntzak garai honetan duen garrantzia azpimarratzekoa da.

Zentzu honetan, 2020. urtean estatu mailan aurkeztutako ikerketa batek (Tudela, Ballesteros, Rubio eta Sanmartín, 2020), pertsona gazteek aniztasunaren inguruan zituzten pertzeptzio eta jarrerak neurtu zituzten. Ikerketaren ondorio nagusia nerabe eta gazte gehienek aniztasunarekiko jarrera positiboa eta tolerantzia dutela izan zen, hala ere, migrazioa edota etnizidadearen gaiak onargarritasun gutxien sortzen zutenak ziren. Horrela, ez dira gutxi gizarte homogeen batean bizitzea nahiago zutela adierazi zuten gazteak, jatorri, kultura eta erlijioari dagokionean, hain zuzen %16,8a. Zentzu honetan azpimarratzekoa da halaber, emakumezkoek proportzio handiagoan egiten dutela gizarte anitzago batekiko apostua (nesken %80,6a eta mutilen %76,2a).

Ikerketa berdina adierazten duenez, gazteen ustez jatorri etnikoa edo arraziala (%55) Estatuan diskriminazio arrazoi nagusiak lirateke baita genero kondizioa (%53,7) ere. Urrutiago joanez gero eta gorroto diskurtsoari so eginez, jakin badakigu gazte eta nerabeak gorroto diskurtsoen lekuko eta biktima izateaz gain, eragile aktibo bezala parte hartzen dutela askotan (Wachs,

Wettstein, Bilz eta Gámez-Guadix, 2022). Zentzu honetan, gorroto diskurtsoa beste pertsonetik adierazpen diskriminatzailean oinarritzen da, “besteak”, ezberdinak bezala ikusiak eta ulertuak direnak izanik beren jatorri, genero, sexu orientazio edota beste ezaugarri edo baldintza pertsonalak direla eta. Horrela, gorroto diskurtsoek sufritzen duten pertsonen ezaugarrietan oinarritutako estereotipo eta aurreiritzietan dute oinarria (Bazzaco, García, Lejardi, Palacios ^o eta Tarragona, 2017).

Honek guztiak taldeen arteko harremanetan du azalpena. Horrela, pertsonok parte sentiarazten gaituzten giza taldeak, endotalde gixara identifikatuak badira, giza talde horietatik kanpo daudenak exotaldeak izango dira. Normalean endotaldearekiko ebaluazio positiboa exotaldearekiko debaluazioarekin batera joateko joera egoten da. Horrela, exotaldeko kideak ezaugarri negatiboekin eta mezu jarrekin lotzen dira, askotan posizio deshumanizatuak, diskriminatzaileak eta mehatxu jarrekin justifikatuz. Talde barneko faboritismo hau beraz, aurreiritzi eta gorroto diskurtsoetara bideratu daiteke, baita jokabide bortitzetara ere (Tajfel eta Turner, 2004).

Nerabearoa “nor naiz?” edo “zertan sinisten dut?” bezalako galderak erantzuteko garaia izaten da, eta beraz, talde arteko jarrerak garatzeko erabakigarria da, jende gazteak bereziki beren erreferentzia taldeen arauak jarraitzeko joera duelarik. Nerabeek

pertenentzia zentzu bat bilatzen dute, baita beren berdinen onarpena ere, honek talde arauak betetzera eramaten ditu, batzuetan arau hauek beste talde batzuekiko diskriminatzaileak direnean ere (Wachs, Wettstein, Bilz eta Gámez-Guadix, 2022).

Horrela gorroto diskurtsoak gazteengan funtzio ezberdinak beteko lituzke, kontuan hartu beharrekoak irauli eta bizikidetzeta eta justizia sozialean oinarritutako baloreak sustatu nahi badira. Lehenik eta behin, pertzibitutako mehatxu baten aurrean defentsa edo erreazio gisara balio dute, botere sentsazioa transmititzen dute eta giza taldean norbere posizioa nabarmenki hobetzen dute (Wachs, Wettstein, Bilz eta Gámez-Guadix, 2022).

Zentzu honetan, kontuan hartuta eskola, familiaren ondotik, gazteen sozializazio eremu nagusia dela eta hortaz, gazteen portaera eta posizio politikoetan eragin handia duela (Varadi, Barna eta Nemeth, 2021), garrantzitsua deritzogu ikasgeletan bizikidetzeta klimak sortzea eta elkar ezagutzea eta talde arteko kontaktuak sustatzea. Tolerantziaren aldeko deklarazioan zehazten den bezala: *“intolerantziaren aurka borrokatzeak hezkuntza exigitzen du. Intolerantzia askotan ez jakintasunetik sortzen da, ezezagunari beldurretik eta gurea sentitzen dugun horren balio exageratutik. Horregatik, ezinbestekoa da gaiaren inguruan hezte eta giza eskubideen inguruan irakastea”* (Unesco, 1995)

2.5 Online gorrotoa eta gazteak

Zentzu honetan gainera, sare sozialen gorenaldiak gorroto diskurtsoen zabalkunderako bidea erraztu du, besteak beste, erabiltzaile gazteenengan, sare sozialen ezaugarriak direla eta: bat-batekotasuna, bitartekari falta, anonimotasuna edota filter bubble eta echo chamber fenomenoak direla eta, besteak beste (Themme eta Huarte, 2021). Azken kontzeptu hauek erabiltzaileek sare sozialetan topatzen duten unibertso pertsonalizatuari egiten diote erreferentzia, zeinetan aukera gutxi egoten den kontrako ikuspuntuak aurkitzeko. Gazteak sare sozialen erabiltzaile handienak direla kontuan hartuta (Statista, 2020), garrantzitsua dirudi hauen ondorioei eta arriskuei begirada zuzentzea. Hain zuzen, sare sozialak gazteriaren erradikalizazioarako faktoreetako bat kontsideratuak izan baitira (García, Miranda, Steible, Díaz eta Sueiro, 2020).

Gainera, 2016an egindako ikerketa batean ikusi zen modura, 15 eta 18 urte arteko gazteen %29ak arrazoi arrazista edo erlijiosoengatik talde eta banakoen aurkako erasoren bat ikusi zutela adierazi zuen (Garmendia et al., 2016). Halaber, azken urteetan adin txikikoek online ikusi dituzten gorroto mezuen konparaketa eginez gero, hazkunde nabarmena dagoela argia da, %12a 2010ean, %18a 2015 eta %28a 2018an.

Datu hauek kontuan hartzea ezinbestekoa da fenomenoaren ulertzeko, Wachs eta Wright (2018) autoreek igarri duten bezala, online gorroto diskurtsoekin harremanetan egotearen eta gorroto mezuek sortzearen arteko korrelazioa zuzena baita. Gauza bera gorroto mezu eta ekintza eta delituekin.

Aldi berean garrantzitsua da gazteen papera errekonozitzea, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkako borrokaren lehenengo leerroan egon baitira, Michelle Bachelet, Giza Eskubideen Nazio Batuen komisioatuaren hitzak errepikatuz (ONU, 2021).

2.6 Kulturantzitasuna hezkuntzan lantzeko baliabideak

Etxeberría, Karrera eta Muruak (2010) irakasleek ikasle atzerritarrekin zituzten kulturarteko gaitasunei buruz eginiko ikerketan ikusi zen bezala, irakasleek ikasle atzerritarrekin landu beharreko material eta tresnak ezagutzen badituzte ere, hauek praktikan jartzeko ezagutza eta baliabide gutxi dituzte, horrekin batera, errekurtsu, formakuntza eta denbora falta ere azpimarratzen dutelarik. Hori dela eta, garrantzitsua da zehaztea EAEn zein baliabide eta material dauden kultura aniztasuna lantzeko.

Alde batetik, Eusko Jaurlaritzak (2019) 2019-2022 urte bitartean lantzeko **Eskola inklusiboa garatzeko esparru-plana** argitaratu zuen, hurrengo helburuak mahaigaineratuz: elkarbizitza, eskola anizkunean oinarritua, gizarte kohesionatua lortzea; politika eta jardunbide inklusiboak sustatzea, baita hauek garatzeko jarduera estrukturalak; ikastetxearen autonomia eta erantzukizuna, kulturak, politikak eta jardunbideak zehaztea eta testuinguruan kokatzea; eta hezkuntza-komunitatea eta ikasleen ongizate psikosoziala lortzen laguntzen duten beste sistemen komunitatea sortzea; hots, gizarte eta osasun-sistemen. Hala, aukera eman nahi die ikastetxe guztiei beren giza baliabideak eta

baliabide materialak eraginkortasunez erabil ditzaten ikasleen garapen integralerako estrategia eraginkorrak garatzeko, eskola inklusiboa, bizikidetzatza positiboa eta bikaintasuna sustatuko dituen esparruan.

Honekin batera 2016-2020 urte bitartean izan zuen **Eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza arreta emateko II.plana** (Eusko Jaurlaritzak, Hezkuntza saila, 2016). Halaber, aurrekotik abiatuta, Eusko Jaurlaritzak (2019), 2019-2020 urteko **Harrera-plana. Ikasle berrien eta haien familien harrera bideratzeko jardunbideak** ere argitaratu zuen, ikastetxeek gida praktikoa modura erabil dezaten ikasle berri bat ikastetxean sartzen denean, protokolo gisara.

Honi lotuta, garrantzia du 2019 - 2023 urte bitartean martxan izango duen EAEko **Hezkuntza sistemarako II.hezkidetzatza plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean** izeneko gida aipatzeak. Hurrengo helburuekin sortu baitzen: hezkuntza Saila eta hezkuntza-sistema hornitzea hezkidetzatza eskola ereduak sustatuko duten egituraz eta pertsonen, bultzada ematea ikastetxeek genero ikuspegia beren kulturaren, politiketan eta jardunbideetan txertatzeari, eta emakumeen aurkako

indarkeriaren aurrean prebentzioa, detekzio goiztiarra eta erantzun eraginkorra lortzeko mekanismoak martxan jartzea, aniztasunaren molde guztiak txertatuaz (erlijio, jatorri, kultura, sexu-aukera etab.)

Plan horiez gain, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren plan bat ere martxan jarria da, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eskutik, (H) ABIAN 2030 izeneko estrategia zehazki. Erakunde publiko ezberdinek babestutako plan honen helburuak besteak beste, justiziarik ezaz eta desparekotasunaz herritarrek kritikoak izatea eta aldaketa kolektibo zein indibidualak sortuko dituzten jardunbide ekitatibo eta solidarioak sortzea izango dira (Eusko Jaurlaritzak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, 2022).

Egungo hezkuntza politikak ulertzeko kontuan izan beharreko beste plan bat Heziberri 2020 izan da. Plan hau, Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza politikarekin eta europak 2020 urteari begira ezarritako hezkuntza eta formakuntzako berrikuntza eta garapen estrategiak kontuan hartuz sortua izan zen, hain zuzen kompetentzien garapenean oinarritutako metodologia jarraituz (Eusko Jaurlaritzak, 2015).

Helburuak eta metodologia

3



Lan honen helburu nagusia ikastetxeen egungo hezkuntza errealitatea ezagutzea da, aniztasun kulturala, arrazakeria eta anti-arrazismoari dagokionean. Bertatik ateratako ikasketak, ezagutza eguneratuak eta arrazakeria, aniztasuna eta migrazioa ikuspegi intersektional batetik hausnartzeak ekarriko dituen ondorioak proposamen didaktiko integral batean islatzeko.

Helburu zehatzak:

- Bigarren hezkuntzako testuinguru ezberdinetako arazoak identifikatzea (arrazakeria, diskriminazioa(k), gorroto diskurtsoak...)
- Identifikatutako arazoei aurre egiteko ekimen ezberdinak ezagutu eta sistematizatzea
- Ikastetxeek eta hezkuntza komunitateko agenteek dituzten baliabideak ezagutzea
- Ikastetxeetan arrazakeria eta kultur aniztasunaren gaiarekiko dagoen interesa eta pertzeptzioa aztertzea, bai ikasleen aldetik baina gainontzeko profesionalen aldetik ere.
- Gazte eta nerabeekin sentzibilizaziorako esku hartze programa ezberdinak ezagutu.
- Antirazismoa eta eraldaketarako hezkuntzaren inguruko diskurtso eta ikuspuntu ezberdinak ezagutzea

Metodologia


Honetarako ikerketa metodo kualitatiboak erabili ditugu, Ikerketa Ekintza Parte Hartzailearen metodologia oinarritzat hartuz. Hezkuntza komunitatearen parte izan daitezkeen agente ezberdinak kontuan hartu nahi izan ditugu, hezkuntza arloa eraldatu nahi badugu guztien parte hartzea eta ahotsa ezinbestekoak direla ulertzen baitugu

Horrela, tresna ezberdinak erabili ditugu diagnostiko honen fase ezberdinetan:

- Bilaketa bibliografikoa: gaiaren inguruko literatura zientifikoa, eta nazioarteko praktikak ezagutzeko.
- Elkarrizketa erdi-egituratuak banakakoak eta taldekoak: hezkuntza komunitatea osatzen duten agenteekin (Bigarren hezkuntzako ikastetxeetako orientatzaileak, zuzendariak, irakasleak, gaian adituak diren agenteak, hezkuntza ez formaleko hezitzaileak...). 45 minutuko iraupena izan dute orohar eta elkarrizketa gidoi bat jarraituz gauzatu dira (ikus eranskina 1).
- Ikasleei zuzendutako galdetegi mistoak (kuantitatibo eta kualitatiboak): ikasleek arrazakeria, diskriminazioa eta aniztasunaren inguruan duten pertzeptzio, jarrera, ezagutza eta proposamenak ezagutzeko 10 galderako galdetegia (ikus eranskina 2).
- Eztabaida taldea: hezkuntza munduan, bereziki bigarren hezkuntzan adituak diren pertsonen osatutako eztabaida taldea errealitatearen inguruko diagnostiko kolektiboa egiteko eta ezagutzak bateratu eta proposamen partekatutak diseinatzeko. 8 pertsonako eztabaida saioa, 2 orduko iraupena duena eta galdera gidoi bat jarraituz dinamizatu dena (ikus eranskina 3).

Emaitzen azterketa

4



4.1 Hezkuntza arloko profesionalen ahotsak

Elkarrizketa erdi egituratuaren emaitzak

Atal honetan, Gipuzkoako lurralde historikoan hezkuntzaren alorrean lan egiten duten zenbait profesional eta adituen perspektiba jaso dugu, gaur egun bizi dugun egoeraren inguruko ikuspuntua zabaldu, haur zein gazteek dituzten beharren eta baliabideen diagnostikoa osatu eta etorkizunean hauek asetzeko har daitezkeen neurriak eraikitzeke asmoz.

Hori guztia esanda, ondorengo ataletan, herri, testuinguru eta eredu ezberdinak dituzten hezkuntza zentroetako zortzi profesionali gauzatutako elkarrizketak izango ditugu ardatz: ikastetxe publiko, zein itunpekoetako profesionalak dira, zuzendaritza lanetan dauden batzuk, orientatzaileak, irakasle eta tutoreak. Horrez gain, bi aditu elkarrizketatu dira, Giza Eskubideen pedagogian aditua den pertsona bat eta hezkuntza ez formalean aditua den beste bat. Honenbestez, elkarrizketa hauetatik atera ditugun ondorioak aurkeztuko ditugu, horrela, gainontzeko eskolen errealitateak ikasi eta hau gure hezkuntza eredu hobetzeko baliagarria izan dadin.

Aniztasun kulturala eta kulturartekotasuna bigarren hezkuntzako ikastetxeetan

Aztertutako ikastetxeei begira, aniztasun kulturala eta arrazakeriaren inguruko errealitate, erronka eta behar nagusiak identifikatzea izan

da lehendabiziko xedea. Horrela, lehenik eta behin beren ikastetxeetan aniztasunaren presentziaren inguruko pertzeptzioak jaso dira. Ondoren, elkarrizketatuek beren ikastetxeetan aniztasun kulturalari eta arrazakeriari lotutako erronkak identifikatu dituzte, besteak beste, familien parte hartzea lortzea, harrera modu egokian kudeatzea, euskararen normalizazioarekin batera hizkuntz aniztasuna bermatzea, eta iritsi berri diren ikasleen sozializazioa aipatu direlarik. Zentzu honetan zenbait praktika egoki identifikatzen dira.

Elkarrizketatutako profesionalen aburuz, azken urteetan bigarren hezkuntzako ikastetxeetan aniztasuna gero eta presenteago dagoela nabarmena da, eta Gipuzkoako egungo gizartearen islada izango litzakeela uste dute. Zentzu honetan, ikasle, zein gainontzeko profesionalak aniztasun hau naturalizat jotzen dute, normalizatutako errealitatea dela adieraziz.

“Nik uste hemen, dagoen giroa egonda, oso onartua dutela txikitatik, batez ere lehen hezkuntzan, betidanik bizi baitira elkarrekin. Aldea egotekotan lehen eta bigarren hezkuntzaren artean egon daiteke, eskolak anitzagoak izaten direlako.” (DBHko zuzendaria. Ikastetxe publikoa).

“Nahiko onartua dago, ia gela guztietan kanpotik etorritako

pertsonaren bat dago, leku ezberdinetatik. Baina egia da bat batean iristen diren horien harrera kudeatzea oso konplikatu dela, bai koordinaziotik bai irakasleen aldetik, gauza asko kudeatu behar dira hor.” (DBHko zuzendaria. Itunpeko ikastetxea)

Dena den, aniztasunaren presentzia oso modu ezberdin eta desparekoan banatzen da ikastetxeen arabera, batzuetan ikasleen gehiengoak du jatorria atzerrian eta beste batzuetan gutxiengoa da. Honen arrazoiak hezkuntza eredu, publiko-pribatu izatea eta kokapena izan daitezkeela uste dute eta zentzu honetan ados daude beharrezkoa dela segregazioarekin bukatzeko neurriak lehen bait lehen hartzea, bizikidetzan dituen ondorioak ikusita eta kohesio sozialari begira.

Zentzu honetan, **familien parte hartzea** ezinbestekotzat jotzen dute eskola inklusibo bat lortu nahi bada. Bigarren hezkuntzako ikastetxeetan ordea hau lortzea oso zaila omen da, familiek ez dutelako ikastetxean inplikatzeko joera. Hala ere, praktika on batzuk identifikatu ditugu zentzu honetan, familia, irakasle eta ikasleen artean hezkuntza komunitateak osatzearena hain zuzen. Honen bidez ikasketa belaunaldiartekoa, erreferente positiboaren eraikuntza, estereotipo eta aurreritziak haustea, kulturarteko kontaktuak sortzea, ikasleen motibazioa handitzea, etab. lortzen baita.

Aldi berean, eta antzematen diren erronken haritik, elkarrizketatutako profesional guztiek **euskara eta hizkuntza konpetentziak** dituzte erronkatzat, bai iritsi berri diren ikasleei begira, baita eskoletan normalizazioa lortze aldera ere. Orokorrean, D ereduko ikastetxeak diren arren gaztelania nagusitzen da zentroan, eta egoera hau egungo joeretara eta jendartearen errealitatera egotzen dute, ikasle gazteen hizkuntzarekiko interes faltara, estatusa lortzeko erabiltzen den estrategia ere izan daiteke, familia eta gainontzeko testuinguruetan euskararen erabilera faltagatik, etab.

Gauza bera gertatzen da atzeritik etorritako ikasleekin, zentzu honetan, ezinbesteko erronka ikasle iritsi berri hauei euskararekiko interesa piztea dela pentsatzen dute, beren arrakasta akademikoan eragin zuzena izango duelako, baita maila sozialean ere inklusio osorako ezinbesteko gakotzat dutelako, batez ere gehiengo euskalduna duten testuinguru eta zonaldeetan. Ildo berean, familia iritsi berriak euskararen garrantziaz sentsibilizatzea ezinbesteko ikusten dute, baita baliabide nahikoa jartzea ikasleek hizkuntza konpetentziak jaso ditzaten beren ikaskideengandik gehiegi urrundu gabe.

*“Azken urteetan, etorri diren ikasle berri guztiak atenditzeko hizkuntza errefortzua eskasa da: ikastetxe mailan 23 nazionalitate ezberdin egonda, astean 10 ordurako baliabideak dira eskaintzen zaizkigunak, ikastetxe osorako, ikasle eta maila ezberdinentzat...”
(Zuzendaria, itunpeko ikastetxea).*

Hizkuntzaren ildotik, aztertutako ikastetxe horien beste ezaugarri berezi bat ikasleen **hizkuntza-aniztasuna** da, zentzu honetan elkarrizketetan ageri den beste kezketako bat ikasleen jatorrizko hizkuntzak bermatu eta mantentzearena da, bertakoa ikasten duten bitartean. Askotan beren irakasle paperetik hau bermatzeko zailtasunak edo ezjakintasuna dutela aitortzen dute zenbaitek.

Honekin estuki lotuta, ikasle berrien **harrerari** dagokionez, orokorrean baliabide urriak dituztela salatzen dute elkarrizketatu gehienek, askotan mugatuta ikusten dutela ikasle eta familia berriei egin ahal zaien harrera eta jarraipena; ezinbestekoa dela profesional gehiago eskuragarri izatea tutoreek pixu guztia bere gain hartu ez dezaten. Ikasleei dagokienez, beraien ikaskideekiko berdintasun soziala, zein akademikoa lortzea dute helburu. Hala ere, batzuetan hartzen diren neurriek ez dutela laguntzen uste dute. Horretarako, hurbilpen ezberdinak agertu dira ikastetxe bakoitzean: ongi etorri gelak, IPlak, gela barneko errefortzua...

Hain zuzen, iritsi berri diren ikasleei ongi etorria egiteko kasu gehienetan Harrera Planak dituzte ikastetxe mailan, bat-bateko iritsierak ahalik eta hoberen kudeatzeko asmotan. Kasu batzuetan, gainera, harrera protokolo honetan ikastetxeko pertsona bat izendatzen dute ikasle bakoitzari harrera eta jarraipena egiteko. Harrera ordea ez da plan edo teorietan agertzen dena bezain erraza, batez ere bat-bateko iritsierak direnean eta ikaslea egun batetik bestera gelan sartu eta egokitu behar den kasuetan.

“Harrera egiteko arduradun bat dugu, baina, batzuetan ikasle hauetaz ez dugu informaziorik izaten eta egun batetik bestera esleitzen diete ikastetxea (...) baina, gauzak ondo egiteko eta prestatzeko denbora behar dugu (...) batzuetan familia egunean bertan edo hurrengoan etortzen da, eta batzuetan ematen du ez dugula egiten egin behar duguna (...) egokitzeko denbora behar dugu guk ere”. (DBH zuzendaria, Itunpekoa ikastetxea).

Harrerari lotuta **praktika egoki** ezberdinak identifikatu dira prozesuan zehar, besteak beste:

- **Harrera komunitarioa:** familia iritsi berri bat dagoenean harrera herri mailan egiten da, bai ikastetxean, baita udaletxe eta beste instituzioetatik harrera koordinatu eta komunitarioa aurrera eramanez. Zerbitzu ezberdinen berri ematen zaie herrian nagusi diren hizkuntzetan.
- **Harrera egiteko beste inklusio proiektu eta erakunderekin batera lan egitea:** eskolak gaitasun mugatuak dituela ikusita, beste inklusio eta parte hartze proiektuak gauzatzen dituzten erakunde batzuekin elkarlanean familia eta ikasle iritsi berrien egokitzapena laguntzen da eskolaz kanpo.

Bestalde, ikasleen jatorriaz haratago beren egoera sozioekonomikoak pixu handiagoa duela antzematen duten gehienek, eta honek duela eragin gehien beren egoera akademiko eta sozialean ikastetxean. Zentzu horretan argi dute, ikasleen beharrak askotan eskolak

asetu ezin dituenak diren arren, eskolak kontuan hartu beharko lituzkeen faktoreak direla, ikaslearen egoera eta ikasketetan nola eragingo dioten aztertzeke eta kontziente izateko.

Ageri den beste kezketako bat ikasle iritsi berrien gizarteratzea da, izan ere, egokitzapen akademikoari lehentasuna ematean ikasle hauek beren ikasgeletatik banatzeko joera dago eta honek ez du laguntzen beren sozializazioan. Halaber, kasu bakarrean izan den arren, aipatzekoa da ikastetxe batean antzeman dutela, adina dela eta, koadrilak sortzeko joera dagoela eta iritsi berri diren ikasleek askotan zailtasunak dituztela talde hauetan onartuak izateko.

“Gurean identifikatu dudan zerbait da ikasle berrientzat oso zaila dela taldean insertatzea (...) Ez dakit den bere jatorriaren arazoa, edo den DBHko talde batean sartzea, ez dela batere erraza. (...) Bertako ikasleek ere arazo asko dituzte kuadrilletan.” (DBHko irakaslea. Itunpeko ikastetxea)

Arrazakeria ikastetxean

Arrazakeriari lotuta eta ikastetxean egon daitezkeen edo beren esperientzian zehar bizi izan dituzten egoerak ezagutzea ere interesgarria iruditu zitzaigun. Egindako elkarrizketetan oinarrituta, orokorrean elkarrizketatutako profesionalak ez dute

arrazakeriarekin lotutako gatazkarik identifikatu beren ikastetxeetan, eta gertatu izan denean beste arrazoi batzuk ere egon zitezkeela aipatzen zuten, askotan ikasleen arteko gatazka pertsonalak izaten direla, eta arrazakeria erabiltzen duten beste erasoetako bat dela. Arrazakeria beraz, ez dute arrazoi nagusitzat hartzen, eta hortaz ez du alarmerik pizten. Ildo beretik, eta ikastetxeko beharren identifikazioari begira, arrazakeriaren gaia lantzea garrantzitsutzat jotzen den arren, premia handiago duten beste eremu batzuk identifikatzen dituzte, gatazaken kudeaketa besteak beste.

“Arazo gehiago ditugu beste motatakoak, egunero izaten direla (...) ez dugu arrazakeriari lotutako arazo berezirik antzematen.” (DBH zuzendaria. Ikastetxe publikoa)

“Guk egia esan oso arazo gutxi kudeatu behar izan dugu, egongo dira, baina agian ni ez naiz kontziente izan edo ez zait tokatu... familien aldetik noizbait komentarioren bat entzun behar izan dugu baina oso kasu zehatzetan”. (Zuzendaria, itunpeko ikastetxea)

Hala ere, arrazakeriaren formak sutil eta askotan ikustezinak direla kontziente dira profesional asko, ikasle zein irakasleek ezinbestez barneratuta duten zerbait dela, eta beraz hori izan daitekeela identifikatzeko gai ez izatearen arrazoietako bat.

“Ikasleek elkarren artean liskarrak izaten dituzte, baina, gure aurrean tapatu egiten dituzte (...) Gelan ez duzu nabarmentzen arrazakeria kasurik.” (DBHko irakaslea. Itunpeko ikastetxea)

Gatazkatik haratago, **ikasleen arteko irain eta bromak** aipatzen dituzte gehien, jatorria, azal kolorea, kultura edo erlijioan oinarria izaten baitute askotan, hala ere, profesionalak hau ez dute arrazakeriatzat hartzen askotan, ikasleen adinari eta komunikatzeko moduei egozten diote gehienetan. Edonola ere, argi adierazten dute beren ikastetxeetan arrazakeriarekin lotutako erasorik ez dela onartzen eta egotekotan erantzun bat emango litzaiokeela. Ordea, oro har ez dago erantzuteko protokolo zehatzik, beste edozein gatazkarako erabiliko litzakeen protokoloa erabiliko luketeela aipatzen dute.

Alderdi prebentiboari eta sentsibilizazioari dagokionez, arrazakeria eta kulturartekotasunaren gaiak orokorrean ez dira zuzenean lantzen diren gaiak, ikastetxeek zeharka lantzen dutela aitortzen dute eta askotan beharrezko iruditzen zaiena baino urriagoa izaten dela lanketa hau, azalean gelditzen dela. Zentzu honetan orokorrean irakasleagoak gaiarekiko **formakuntza nahikorik ez** duela iruditzen zaie eta gaia ez lantzeko arrazoi ezberdinak aipatzen dira: denbora falta, beste gai batzuekiko lehentasuna, gai eta esku hartzeen atomizazioa, material

egokia identifikatzeko zailtasunak, kurrikulumaren pixua, irakasle batzuen interes falta... Arrazoi nagusien artean lantzeko gai asko dituztela da aipatuetao bat, denak garrantzia duen arren eskolek aukeraketa bat egin behar dutela, eta askotan kontziente direla egiten duten lanketa ez dela nahikoa.

“Gertatzen dena da gai asko direla landu behar direnak, aniztasun afektibo sexuala, genero berdintasuna, drogak, bullying-a... eta dugun denbora mugatua da” (4.DBH Tutore taldea, ikastetxe publikoa)

“Gauza asko dira, eta guk ere pandemiarekin behatoki guztiak orain behartu behar izan ditugu, baina asko dago lantzeko eta seguru hor bidean gauza asko uzten ditugula landu beharko lirakeenak baina ez digu ez denborarik, ez baliabiderik...” (DBHko zuzendaria, ikastetxe publikoa)

Gaia esplizituki lantzen den kasuetan irakasle edo arduradunaren sentsibilizazio indibidualaren araberakoa izaten da, ez ikastetxearen egiturari dagoelako. Lantzen diren kasuetan tutoretza saioetan izaten dela aipatzen dute (pelikulen eta eztabaiden bitartez gehienbat) edota kanpoko profesional edo erakundeak gonbidatuz, oso modu puntualean. Honi lotuta, kulturarteko ekimen eta jaiak aipatu izan dira (kulturen astea, gastrofesta...).

Hala ere, elkarriketatu ditugun profesionalak gaia lantzearen garrantzia azpimarratzen dute, eta zentzu horretan **erronka eta estrategia ezberdinak** identifikatzen dituzte:

- Ikasleen pentsamendu kritikoa sustatzea
- Balore eta emozioetan hezteak: arrazakeriaren oinarrian egon daitezkeen balio eta baloreak landuz
- Memoria historikoa lantzea
- Hizkuntza zaintzea bai ikasle, bai irakasleen artean ere.
- Komunikazio gaitasunak lantzea ikasleekin
- Sare sozialen eta komunikabideen inguruko alfabetizazioa eta erabilera kritikoa sustatzea
- Gatazken kudeaketa lantzea
- Kulturartekotasuna eta arrazakeriaren aukarko begirada ikasgai guztietan txertatzea
- Ikasleengan ardura sustatzea
- Irakasle eta familiek ere formakuntza jasotzea, bai kulturartekotasun eta arrazakeriaren aurkako begiradaren inguruan, baita migrazioa eta pertsona atzeritarren egoera eta oztopoen inguruan.

Zentzu berean, ikastetxe batzuetan arrazakeria modu zuzenean lantzen ez

den arren, baloreetan hezterari garrantzia handia ematen diote, uste baitute bigarren hezkuntzan, edukiak hartzen duten garrantzia dela eta, normalean alde batera uzten den zerbait dela. Modu honetan, errespetua, berdintasuna eta justizia bezalako baloreak lantzean arrazakeriaren aurkako sentsibilizazioa ere lantzen baita implizituki.

“Gure ikastetxean egia da baloreen aldeko hezkuntza nahiko sistematizatu dagoela, bai irakasleen aldetik, bai ikasle eta familien aldetik ere. Ikasturte bakoitzean balore bat lantzen dela guztiok dakigu eta orduan horrelako gaiak ere ez dira arrotzak egiten, eta arrazakeria zuzenki lantzen ez den arren, ikastetxeko kulturaren errespetua eta elkartasuna bezalako baloreak daude.” (DBH tutorea, itunpeko ikastetxea)

Aipatuetao beste gabezia edo erronka bat irakaslearen formakuntza falta da, izan ere beren oinarriko formakuntzan ez baitute kulturarteko begirada lantzen eta batzuek pertsonalki interesa izan badute ere, orokorrean gehiengoak ez du ezagutza handiegirik. Horrela, beharrezko ikusten dute irakasleak kulturarteko konpetentzietan trebatzea, eta ikasle atzeritarren eta hauen familien egoera ulertzeko gakoak eskuratzea. Zentzu honetan ikastetxeko familiek ere jaso beharreko formakuntza dela deritzo dute batzuek.

“Ni konturatzen naiz askotan jendea, irakasleak eta familiak ere, ez garela guztiz kontziente atzerritik etorri zaizkigun ikasleek eta beren familiek bizi behar dituzten oztopo guztietaz, atzerritartasun legetik hasita. Uste dut honekiko kontzientzia izateak sentsibilizazioa areagotuko lukeela eta ikasleen egoera akademikoa ere ulertzen lagunduko lukeela.” (DBHko orientatzailea, ikastetxe publikoa)

Hezkuntza ez formala

Hezkuntza formaletik at ere arrazakeria eta ikuspegi antiarrazista hezkuntza ez formalean nola bideratzen den ikustea interesgarria iruditu zaigu, aisialdi eta denbora librean gertatzen baitira pertsona arteko interakzio zintzoenak. Zentzu honetan, arloan aditua eta esperientziaduna den elkarrizketatuaren hitzetan, hezkuntza ez formala bizikidetzarako aukera asko eskaintzen ditu, elkar ezagutza, parte hartzea eta enpatia baitira oinarri. Aisialdian sortu daitezkeen pertsona arteko loturei ematen die garrantzia.

“Nire ustez arrazakeria hauren beldurretatik sortzen den zerbaít da, elkar ezagutza faltagatik gertatzen den zerbaít eta zentzu honetan hezkuntza ez formalean, jolasaren bitartez ikasleek elkar ezagutzeko aukera garatzen dute, eskolan ez bezala kasu askotan.” (Hezkuntza ez formalean aditua).

Hala ere, hezkuntza ez formalerantz irisgarritasuna duten gazteak ez dira gizartearen aniztasunaren isla, aisialdi jarduerak irekiak eta eskuragarriak izaten saiatzen diren arren, maila sozioekonomiko jakin batzuetako familien haurrak izaten dira bertan parte hartzen dutenak, eta honek askotan hauen jatorriarekin ere du zerikusia. Zentzu honetan, identifikatutako erronka handienetakoa da matrikula irekiak bermatzearena, talde anitzak osatu eta guztion parte hartzea sustatzearen.

Hezkuntza formalean bezala, kasu honetan ere arrazakeriaren eta kulturartekotasunaren gaia ez omen da zuzenki ezta ofizialki lantzen hezkuntza ez formalean, eta lantzekotan kultur aniztasunean eta honen balio erantsian erdiratzen da gehien bat, ez kulturen arteko botere harreman eta arrazakeria dinamiketan.

“Nik uste dut ez direla modu ofizialean lantzen, modu puntualean akaso edota begiraleen arabera lantzen dela, baina ez dagoela begirada barneratu bat. Ikusten dut adibidez genero ikuspegia eta hezkidetzak asko lantzen direla, eta horren arabera egiten direla jarduerak asko, baina aniztasuna ordez, ez da oraindik lehentasun gisa hartzen.” (Hezkuntza ez formalean aditua)

Zentzu honetan begiraleak trebatzea ezinbestekoa dela uste du, begirada kritikoa izan dezaten aniztasunarekiko eta beren lanean aurreiritzi eta jokabide

inkontzienteak ekiditearren, besteak beste. Halaber, ikasleek erreferenteak behar dituztela ere aipatu izan da, eta hauek gero eta gehiago diren arren, ikusgarritasuna ematearen garrantzia azpimarratzen du.

Giza eskubideak hezkuntza testuinguruan

Giza eskubideen eta arrazakeriaren arteko lotura agerikoa da, eta hala deritza ere giza eskubideen pedagogian aditua den elkarrizketatuak, arrazakeria gorroto diskurtsoaren manifestazioetako bat baita. Giza eskubideen hezkuntza “giza eskubideei buruzko ezagutzak eta eskubide horiek babesteko mekanismoak emateaz ez ezik, eguneroko bizitzan giza eskubideak sustatu, defendatu eta aplikatzeko beharrezko gaitasunak ematen ditu”-ena da (Eskura, 2022), eskolak, jendarteko instituzio garrantzitsu gisara gauzatu eta bermatu beharko lukeena.

Izan ere, eskolak, jendartearen isla eta parte den heinean, honetan ematen diren urraketak salatzen du, eta gainera, ezinbestekoa deritzogu eskolan bertan gertatu daitezkeen giza eskubideen urraketak identifikatu, salatu eta iraultzea. Gaur egungo hezkuntza sisteman eta gure testuinguruan ere, hezkuntza eskubidea askotan ez baita bermatua izaten baliabide urriak dituzten ikasleentzat, esklusibitatean oinarritzen da beraz, eta honek beste hainbat eskubide eskuratzea eragozten die haur hauei.

Bestalde, adituen arabera, beste hainbat eskubide ere ez dira bermatzen, besteak beste, erlijio askatasunaren eskubidea, zeinetan ikasle bakoitzak bere erlijioa aukeratu eta praktikatzeko eskubidea izan beharko lukeen. Zentzu honetan, eskolak gero eta inklusiboagoak diren arren, erlijio aniztasuna bermatzeko oztopo asko daudela azaltzen da. Honekin estuki lotuta dago hizkuntzarako eskubidea ere, askotan ez delako guztiz bermatzen eta ikasle eleanitzek hizkuntzarekiko prozesu bortitzak igaro behar izaten dituztela kontuan hartuta, eta arazo hau erdigunean jartzen delarik, hezkuntzarako eskubidearekin talka egiteko aukera duela aipatu da.

Hezkuntzarako eskubideak eta eskubide sozial eta kulturalak aipatzean, diskriminazio ezarako konpromezua ere azpimarratzen du, izan ere, zenbaitetan, kontuan hartzen bada ere, ez dela guztiz gauzatzen dio. Honekin batera, irakasleek modu duin batean lan egiteko eskubidearen urrapena azpimarratu nahi izan du, denetarik egitea eta jakitea eskatzen zaielako, gainkarga bat ekartzen dielarik.

“Gaur egun eskatzen zaie izatea irakasle, gizarte langilea, hezitzailea, erizaina,... Eta modu ideal batean hori izango litzateke hezkuntza sistemaren antolaketaren idealena, baina, gaur egun sobrekargatzen dira eta beraien lana ondo egiteko eskubidea lausotzen da.” (Gizarte Eskubideen pedagogian aditua)

Ildo beretik, kultur eskubideak ere hezkuntza testuinguruan guztiz bermatuta egotea zalantzan jartzen du gure adituak, izan ere, “hezkuntza sistema asimilatzailea den bitartean, norbere kultur identitateak garatzea eragozten du modu inplizitu eta batzuetan esplizituan, eta beraz ez da norbere kultura askatasunez garatzeko eskubidea bermatzen”.

Hortaz, gaur egungo eta gure testuinguruan dugun hezkuntza sistema oraindik giza eskubideen hezkuntza

batetik urrun dago elkarrizketatuaren iritzi, teoria eta praktikaren arteko tarte handi bat dago. “Hezkuntza plan ofizialak eta proposamenak oso aurrerakoiak dira azken urteetan, bai pedagogia berritzaileen aldetik, baita edukien aldetik ere, aldiz errealitatearekin talka egiten dute, planek proposatzen dutena ez baita hezkuntza zentroetan islatzen, eta alderantziz ere, ez da errealitateetik abiatzen plan hauek garatzerako orduan”. Hala ere, teorikoki bada ere gertu egotea aurrerapauso handia dela deritzo, intentzio bat dagoela erakusten baitu.

Gehienetan ikastetxeetan gai hauen lanketa, ikastetxetik kanpoko erakunde edo eragileek egindako tailer solte bidez soilik egiten denez, elkarrizketatuaren proposamena sistemaren erroetik lantzea da; sistemaren perspektiba eta kudeaketan sinergia bat sortuz. Horretarako, nahiz eta irtenbide argi bat ez izan, berak esan modura “ez dagoelako formula magikorik”, funtsezkoa iruditzen zaio erakunde hauetako aditu eta begirada sakonagoa duten eragileek, irakasle, orientatzaile edota hezkuntza planen arduradunekin elkarlanean aritzea, modu hurbilago batetik.

Egungo gazteria eta gorroto diskurtsoak

Gaur egungo gazteriak ere badu zer esatekorik gai hauekiko. Hala ere, gazteriarekiko perspektiba katastrofista bat zabaldua dagoela atzeman da. Horren aurka azaldu da giza eskubideen pedagogian aditua den elkarrizketatua, izan ere, gazteak aniztasunaren inguruan sentsibilizatuak daudela iruditzen zaio, migrazioen kudeaketak ere gertu eragin dielako. Honekin batera, diskurtso argi bat sortu dutela ere aipatu du, zenbaitetan politikoki zuzena den horretan erortzen direlarik, erronka bat izanik honen lanketa.

Halaber, gai hauekiko gehiegizko lanketa baten sentsazioa dutenez, zenbaitetan abertsio bat erakutsi dute, kasu batzuetan gorroto diskurtsoak gailendu

dielarik. Gehiegizko sentsibilizazio baten aurrean eta sistema, honen oreka bat bilatzen saiatzen denez, gazteek beraien pentsamendu eta diskurtsoak muturrera eramaten dituzte, horrela, pentsamendu geroz eta polarizatuagoak sortuz.

Honen aurrean, elkarrizketatuak Aingura edo halo efektua aipatzen du, ideia edo pentsamendu oso muturreko bat azaleratzean edo erdigunean jartzean gizartea ideia horretatik urrun egonda ere, ideiera hurbiltzeko balioko lukeelakoan. Helburua ez da, muturreko ideia horretan kokatzea jendea, baizik eta, flexibilizazio bat eta hurbiltasun bat lortzea pentsamendu eta errealitate ezberdinekiko. Feminismoa adibidetzat hartuta, gaur egun sistemaren erroa joaten diren diskurtsoak edo diskurtso erradikalak gizarte orokorrak duen sentsibilizazio mailatik urruntzen direla dirudien arren, eta horregatik abertsio bat sortu dezaketen arren, gerora gizaretaren sentsibilizazioa handituko luke “dagoeneko jendea beste puntu batetik hasiko da, agian ez diskurtso erradikal horrekin guztiz bat egiten baina bai hurbilago”.

“Todo lo radical tiene el peligro de que se polarice con algo más extremo, pero a la vez, genera que todo se mueva y se flexibilice más.” (Giza Eskubideen pedagogian aditua)

Pentsamendu kritikiko baten lanketaren beharra azpimarratu da ere elkarrizketan, bakoitzaren eskubide eta pribilegioak landuz esaterako. Askotan, gazte batzuk Giza Eskubideak oso bermatuak izaten dituztenez, ez dira kontziente horiez disfrutatzen ari direla, eta zenbaitetan eskubide horiek pribilegio bihurtu daitezkeela, horrela, jokabide diskriminatzaile eta paternalistak gailenduz. Horregatik pribilegio eta eskubideen arteko ezberdintasuna azpimarratzeari ematen dio garrantzia eta gaur egun gazte batzuek duten egoera lortzeko egin behar izan zen ahaleginaz kontziente izatea.

4.2. Gazteen begirada arrazakeria eta kulturartekotasunarekiko.

Ikasleek erantzundako galdetegiaren emaitzak

Gazteek jarrera diskriminatzaileen aurrean hartzen duten posizioa ezagutzea ezinbestekoa da eszena sozial gero eta pluralagoak ditugun honetan, non hiritar kritiko eta inklusiboak gero eta beharrezkoagoak diren. Halaber, garrantzitsua da, izan dituzten esperientziak ezagutu eta arrazakeriaren inguruan dituzten ezagutza eta diskurtsoak aztertzea.

Horregatik, irakasle eta adituei galdetzeaz gain ikasleen ahotsa, pertzepzioa eta iritziak jasotzeko galdetegi kuantitatibo bat pasatu zen ikastetxe ezberdinetan, atal honetan galdetegi honen emaitzak aurkeztea izango da xedea.

Informazioa jasotzeko erabilitako tresna 10 galderaz osatutako galdetegi mistoa izan da, galdera kuantitatibo (aukera anitzekoak, likert eskalak eta maiztasun eskalak) eta kualitatiboak uztartzen zituena. Helburua ikasle gazteek arrazakeria eta kulturartekotasunaren

inguruan dituzten pertzeptzio, ikuspegi eta iritziak jasotzea da. Zehazki, arrazakeria zerekin eta zein neurritan identifikatzen duten ezagutzea; beren inguruan arrazakeriaren pertzeptzioaren maiztasuna eta nolakotasuna jasotzea; beren azalean bizi ahal izan duten ikasleen kasuan, eraso hauen nolakotasuna aztertzea eta azkenik, arrazakeriaren aurrean gazteek proposatzen dituzten aurre egiteko estrategiak ezagutzea.

Laginari dagokionez, 12 eta 18 urte bitarteko gazteak izan dira lagina osatu dutenak, zehazki, **415** izan direlarik galdetegia erantzun duten ikasleak, bai ikastetxe publiko, bai itunpekoetakoetakoak. %47,7 emakumezkoak izan dira, %49,2 gizonezkoak eta %1 ez binarioak.

Horrela, datuen analisitik ateratako aurkikuntza handienak aurkeztuko dira aurrerantzean.

Arrazakeriaren inguruko ezagutza eta sinesmenak

Arrazakeriaren inguruan ikasleek dituzten sinesmen eta ezagutzak neurtzeko hainbat esaldi arrazistatzat hartzen zituzten galdetu zitzaizen⁴, 1etik

5era baloratzeko eskatuz. Emaitzek erakutsi dutenez, ikasleek altuen puntuatu zituzten adierazpenak, eta hortaz arrazismo maila altuena irudikatzen zutenak, jazarpen fisikoarekin zerikusia zutenak izan ziren (isekak eta irainak eta bazterkeria egoerak berdinen arteko harremanetan). Aldiz, konparaketan sinesmenekin lotura zuten adierazpen horiek maila baxuagoan puntuatu ziren, ezberdintasuna oso nabarmena ez den arren. Esan dezakegu beraz, arrazakeria oro har eraso fisikoekin edo oso ageriko bazterkeriarekin lotzen dutela galdetegia erantzun zuten ikasle nerabeek.


Nabarmena da halaber, ikaskideren baten kultura, jatorria, erlijioa edota azal kolorearekin lotutako burla eta txisteak maila baxuagoan baloratzen dituztela gazteek arrazistatzat eta hortaz, normalizatuta duten praktika bat dela, edukiaren seriotasuna eta mezuaren intenzioa ez dituzte beraz arrazistatzat humoreari dagokionean. Aldi berean aipagarria da pertsona etorkinen eta gizarte zerbitzuen eta dirulaguntzen inguruko zurrumurruen eragina gazteengan (grafikoa 1), izan ere, tolerantziaren mugatik gertu kokatzen baita adierazpen hau ikasleen pertzeptzioak ikusita, hala ere, puntuazio baxuaren arrazoia galdera ulertu ez izana ere izan daiteke.

4. Ikusi eranskinak:
Eranskina 2 - ikasleen galdetegia

Grafikoa 1.
Adierazpen arrazistak intentsitate mailaren arabera. Adierazpen hauek zein mailatan uste duzu direla arrazistak?

Adierazpen hauek zein mailatan uste duzu direla arrazistak?

(1 batere - 5 guztiz)




Arrazakeria jokabideen maiztasunaren pertzeptzioa

Ikasleei hauen inguruko pertsonak eta haiek beraiek izan ditzaketen jarrera arrazisten maiztasunaren inguruan galdetzean, **jokabide arrazista gehienak edo maiztasun altuenek beraien ikaskideen artean** identifikatu dituztela erakutsi dute emaitzek (grafikoa 2).

Familian irakasle eta norberarengan baino maizago antzeman dute jokabide arrazistaren bat: ikasleen %57,6ek beren buruarengan ez du inoiz jarrera arrazistarik antzematen, familian ordea ikasleen %19,5ek batzuetan, maiz edo oso maiz antzeman izan ditu jokabide arrazistak (grafikoa 2).

Grafikoa 2.
Jarrera arrazisten manifestazioaren maiztasuna inguruaren arabera. Zenbateko maiztasunarekin uste duzu dituztela jarrera arrazistak? Zure familiak, zure ikaskideek, zure irakasleek eta zuk zeuk?

Zenbateko maiztasunarekin uste duzu dituztela jarrera arrazistak?



Arrazakeria kasuen manifestazioen maiztasuna


Ikasleei jarrera edo eraso arrazistaren bat ikusi izan duen galdetzean, orokorrean %76,9ak baiezkoa erantzun zuen, hauetatik gehiengoak emakumezkoak izanik, adinaren arabera ere zenbat eta helduagoak izan erantzun gehiago antzeman dira datu analisian. Honek bi arrazoi hipotetiko izan ditzake: ikasle helduagoengan eraso gehiago ematen direla edo ikasleak helduagoak diren heinean arrazakeria identifikatzeko gaitasun handiagoa dutela (grafikoa 3).

Eraso hauen nolakotasunari dagokionez, ikasleek **gehien antzeman duten egoera pertsona baten jatorri, azal kolore, kultura edota erlijioan oinarritutako iseka eta bromak** egotea izan da, ikasleen %60,8ak markatu duelarik item hau. Jarraian, norbait ezberdin tratatzea bere erlijio, kultura, jatorri edo azal koloreagatik, eta baxuen eraso fisikoak dira ikusi dituztenak (grafikoa 4).

Hala ere, azpimarratzekoa da gutxien markatua izan den arren, ehuneko esanguratsu batek hautatu duen aukera dela, **%18,9k hain zuzen, noizbait ikastetxean pertsona baten jatorri, azal kolore, kultura edo erlijioagatik eraso fisikoak jasotzen ikusi izana adierazi baitu** (grafikoa 4).


Grafikoa 3.
Adierazpen arrazisten bizipena.
Ikusi al duzu inoiz jokabide arrazistarik?

Ikusi izan duzu jokabide arrazistarik inoiz?



Grafikoa 4.
Ikusitako eraso arrazisten nolakotasuna. Ikusi al duzu inoiz horrelako egoerarik?

Ikusitako erasoen nolakotasuna



Arrazakeria egoerak jasan dituzten ikasleak

Gure ikastetxeetako nerabeek beren jatorri kultural edo etniko, erlijio edota nazionalitateagatik jasaten dituzten erasoak ezagutzea berebizikoa da, ikasle guztien ongizatea eta elkarbizitza bermatu nahi badugu eta eraso hauei aurre egin nahi bazaie.


Deigarria da galdetegiak zentzu honetan islatzen duen errealitatea, izan ere, galdetegia erantzun duten (N= 415) **ikasleen %25,1ek adierazi du noizbait eraso arrazistaren bat jasan izana**, proposatutako itemetatik gutxienez bat markatu baitute. Hauetatik gehiengoa mutila izan da (grafikoa 5 eta 6).

Hemen ere, nagusitu diren portaeren artean irainak eta bromak izan dira, “bromak egitea edo norbaiti iseka egitea nire arraza, kultura edo nazionalitateagatik” itema %18,3ak hautatu dutelarik. %10ak desberdin tratatu izana aipatzen du eta zifra baxua den arren, kontuan hartzekoa da %4ak (N=16) noizbait eraso fisikoren bat jasan izana adierazi duela (grafikoa 5 eta 6).

6. grafikoa islatzen duenez ikasle mutilek jazapen ageriko eta fisikoak neskek baino maiztasun handiagoz jasan dituzte, honek ez du halaberrez esan nahi mutilek neskek baino jazapen gehiago sufritzen dutenik, baina neskek diskriminazioaren forma sutilagoen eta zeharkakoen biktima izateko joera dagoela frogatu lezake.


Galdetegi emaitzek atal ezberdinetan erakusten dutenez, “broma” edo “txisteak” haur eta nerabeen artean diskriminazio jarrerak adierazteko modu ohikoenak izaten dira, eta gehien bat ezberdintasunari aipamena egiten dioten horiek. Ezinbestekoa da prestakuntza eta hezkuntza prozesuan zehar hauek lantzea, zuzendu eta errotik aldatu behar diren adierazpenak direla argi geldituz, ikasleen integritatea eta autoestimuan zauri handiak sortu baititzake.

Grafikoa 5.
Eraso arrazisten bizipenak ikasleak biktima izan direnean. Jasan al duzu inoiz horrelako egoerarik zure jatorria, azal kolorea, kultura edo erlijioagatik?



Jasan duzu inoiz horrelako egoerarik ikastetxean?

Grafikoa 6.
Eraso arrazisten bizipenak ikasleak biktima izan direnean sexuaren arabera. Jasan al duzu inoiz horrelako egoerarik zure jatorria, azal kolorea, kultura edo erlijioagatik?



Jasan duzu inoiz horrelako egoerarik?

Prebentzioa


Arrazakeria eta diskriminazio eta bazterkeriaren aurrean ikasleek duten aurre egiteko estrategia aztertzea ere interesgarria da, beren baliabideak eta aurreikuspenak zeintzuk diren identifikatzearen. Horrela, arrazakeriaren aurrean neurri prebentiboen artean eraginkorrenak ziren horiek hautatzeko eskatu zitzaizen ikasleei.

Prebentziorako gehien aukeratu den neurria ikasgelan tailer anti-arrazistak eta sentsibilizazio tailerrak gauzatzearena izan da, zehazki %65,6k hautatu dutelarik aukera hau. Jarraian, berdinak gairela pentsatzea izan da aukeratuena eta arrazakeria jasan duten pertsonak entzutea segidan (grafiko 7).

Zehazki ikastetxean bertan arrazakeriaren aurrean egin daitekeenaren inguruan galdetu zitzaizen ikasleei, galdera irekien bidez. Kasu honetan, erantzunen %19ak ezjakintasuna adierazi du horrelako egoera baten aurrean. Irtenbideren bat eman dutenen artean, gehiengoek gaiaren inguruko sentsibilizazioa egitea proposatu du eta erasoaren biktima izan den hori babestea ere aipatu izan da maiz. Aipagarria da halaber, ikasleen %9,6ak zigorra aipatzen duela aurre egiteko estrategia gisa.

Bukatzeko ikasleek beraiek arrazakeriaren inguruan duten ardura eta eginkizunaren inguruan galdetu zaie. Zentzu honetan gehiengoak (%19,7) norbere jarrera eta jokabideak aldatzearekin lotura duen proposamenen bat egin du, baita eraso jasaten duten pertsona hauei laguntzekoak ere. **Hala ere, kasu honetan ere %17,6ak ez jakintasuna adierazi du galdera honen aurrean, hortaz, orokorrean, baliabide eta aurre egiteko estrategia falta bat antzematen da galdetegiaren bitartez:** Zentzu honetan funtsezkoa da ikasleek arrazakeriaren aurrean erantzun eta salatze baliabideak garatzea.

Grafikoa 7.
Arrazakeriaren aurrean aurre egiteko neurriak. Hauetako zein neurri uste duzue direla eraginkorrenak arrazakeriari aurre egiteko?



4.3. Arrazakeria, kulturartekotasuna eta hezkuntza

Hezkuntza arloan adituen eztabaida taldeko emaitzak

Bigarren hezkuntzako ikastetxeak eta aniztasun kulturala: **erronka eta behar nagusiak**

Asko dira hezkuntza testuinguruan aniztasun kulturalari lotutako erronkak, izan ere, oraindik ere errealitate berriztat dugu gure lurraldean eta faktore eta elementu asko sartzen dira jokoan etengabeko hazkuntzan dagoen aniztasun hau ulertzerako orduan.

Zehazki Bigarren Hezkuntzari dagokionez, eta hezkuntza testuinguru guztira zabaldu daitekeen zerbait izanik, parte hartzaileek aniztasun kulturalarekin lotutako erronkak gainontzeko faktoreekin batera ulertzea ezinbestekoa dela uste dute kudeaketa eta erantzun egoki bat eman nahi bazaio, batez ere, ikasleen egoera sozioekonomiko eta familiarrekin, izan ere, akats bat litzake ikaslearen egoera akademikoa bere kultura edo jatorriari bakarrik egotea.

Gauzak horrela, ikasleen aukera berdintasuna bermatzea ikusten da erronka nagusizat, eta honekin lotuta hainbat faktoreri egiten zaio erreferentzia: eskola porrota eta arrakasta jatorri eta egoera sozioekonomikoengatik aztertzearen garrantzia eta honi aurre egitea; euskara eta hizkuntza kompetentziak bermatzea aukera berdintasunerako gako gisara; asimilazioari aurre egitea ikasle bakoitzaren identitate kulturalak eta askotarikoak bermatze aldera.

Gainera, ezinbestekotzat ikusten da aniztasunaren onarpenaz haratago joan eta honen balioestean esfortzua jartzea

ikastetxe mailan. Zentzu honetan Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren arteko ezberdintasuna nabarmentzen da, izan ere, Lehen Hezkuntzan dagoen zaintza eta babesa guztiz galtzen da nerabeak Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetara iristen direnean. Honek ondorioak ditu bai ikasleengan eta haiekiko harremanean, baita ikastetxe mailan ere, kurrikulumentik kanpo dauden eta edukietatik haratago dauden gaiak lantzerako orduan, kulturartekotasuna eta arrazakeria zehazki ikustezinak diren gaiak dira, errealitatean oso agerikoak izan arren.

“Gutziz ezberdina da balioste hau Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzan. (...) Egia da haiekiko sistemak duen esku hartzea oso desberdina dela zentzu askotan, oso testuinguru jasoan egotetik oso aske egotera pasatzen dira, baina ez abandonatzen. Tutore bat dute erreferente, ordu askotan daude beraiekin, bidaidetza eta babes hori dute, eta bapatean institutura iristen dira eta agian beraien tutorearekin astean ordu bat egoten dira.”

Zentzu honetan, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek komunitatearekiko duten lotura falta aipagarria da, eta kulturartekotasuna eta bizikidetzaren sustatu nahi bada, komunitatearekin harremanak behartzea eta bermatzea behar beharrezkoa litzake, bestean

ezagutza eta kontaktua oso eraginkorra baita aurreiritzi eta gatazkak ekiditeko.

“Irakasleek ikasleen ingurunea ezagutzea ezinbestekoa da, auzoko errealitatea edo komunitatea ezagutzea. (...) Nik arazoa ikusten dut, irakasleek ez dutela ikaslearen familia eta ingurua ezagutzen eta ez dago gerturapen hori”.

Bestalde, hezkuntza sistema berri batean sartzen diren ikasle iritsi berrien kasuari begira, baliabide urritasuna agerikoa da, bai harrera egoki bat egiterako orduan, baita bere hizkuntza kompetentziak bermatu edo indartzeko garaian. Baliabide hutsuneak faktore ezberdinekin lotzen dira, besteak beste: profesional kopuruarekin (giza baliabideak), ikasgela ratioekin, errefortzurako zerbitzuekin, ikaslearen ingurunearen ezagutza faltarekin, etab.

Zentzu honetan sistemaren akatsak agerikoak direla adierazten da, egoera sozioekonomiko eskasa duten ikasleen arrakasta akademikoki begiratzean askotan Bigarren Hezkuntzako ikasketak bukatzeko zailtasunak baitituzte eta gutxi jarraitzen baitute beraien ikasketekin Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean, eta hau kontuan hartu beharreko errealitatea da eskola inklusiboaz ari garenean. Izan ere, ikasleen egoera familiarrek guztiz baldintzatzen du bere ikasketaren prozesua eta hezkuntza sisteman bere egoera ere, hain zuzen, horregatik,

ikasgeletan lan egitea ezinbestekoa dela mahaigaineratzen da etxeko-lanetan horrenbesteko pisua jarri beharrean, ikasgelak baitira eskubide berdintasuna bermatu beharko luketen espazioak. Honen adierazle izan zen Covid 19ak eragindako itxialdia, argi ikusi baitzen egoera sozioekonomiko baxuagoko familietako ikasleek emaitza kaskarragoak izan zituztela.

“Nire alabak zailtasunak baditu, partikularra bidaltzen dut, baina, beste batzuk ez dute hori ordaintzeko aukerarik eta laguntzarik gabe geratuko dira. Eta institutua ez dago horri erantzuteko prest.”

Arrazakeria eta gazteria gaur egun

Gaur egungo gazteria ikusmiran izanda, parte hartzaileek gizartean orokorrean, eta gazteen kasuan ere, inguru oso segregatuak daudela antzematen dute, eta nolabait beren egoera sozioekonomiko, kultural edota interesen arabera naturalki sortzen diren taldekatzeak lirakeela. Azkenean antzekoak direnen edota antzeko egoera dutenen artean taldekatze joera dago.

“Segregazioa nolabait nahi gabe sortzen da, taldeak eta bereizketak sortzen joaten dira. (...) egoeraren arabera elkartzen joaten dira, etorkinak direnak, pobreak direnak, euskera ez dakitenak,... (...). Kulturak ere desberdintasun batzuk sortzen ditu, adibidez, bertso eskola batera agian kanpotik etorritakoak ez dituzte bertara eramaten, aldiz, euskaldunek bai eramango dituztela.”

Eta hemen ere gazteen egoera sozioekonomikoak eragin zuzena du, izan ere, eskolaz kanpo ere aisialdia ezberdina izaten da, ez bakarrik ohitura kulturalak direla eta, baizik eta norbere baliabideen arabera, horrek taldeen ezberdinkeriak eta dominazio dinamikak mantendu eta sustatzen dituelarik.

“Aisialdia ere ezberdina da eta familiaren errekurso ekonomikoekin lotura dauka. (...) Aisialdia kontsumorekin lotuta dago, dirua gastatzearekin eta batzuk ezin diote horri aurre egin.”

Zentzu honetan, ikastetxe eta ikasgela guztiak ez dira errealitatearen islada izaten aniztasunari dagokionean, ezta ikasleen inguru sozialarena ere. Horregatik, elkar ezagutza, auzo bizitza eta komunitatearekin harremana ezinbestekoa da eskolan ere.

Aldi berean, ikasleak askotan arrazakeria identifikatzeko zailtasunak dituztela ados daude, politikoki zuzena zer den ikasi dutela, eta beraz ez dela ohikoa mezu arrazistak modu irekian entzutea ikastetxeetan. Eskola edo jendartetik mezu hauek sozialki onartezinak direla ikasi dute eta, beraz, politikoki zuzenak izateko joera dute. Parte hartzaileek positiboki ikusten dute hau, azken finean oinarrizko printzipio gisa hartzen baita. Hala ere, kontziente dira honek diskriminazio modu berriak ekarri dituela, sotilagoak eta identifikatzeko zailagoak (Komunitate ijituaren parte diren pertsonekin ordea arrazakeria eta bazterkeria guztiz agerikoa izaten jarraitzen duela ikusten dute profesionalak).

Hala ere, gizarteak berak mekanismo ezberdinen bidez aniztasunarekiko mezu negatiboak bidaltzen dizkie gazteei, eta gazteek hauek erreproduzitzen dituzte bai ikastetxean,

bai ikastetxeetatik kanpo ere. Familia, komunikabideak eta sare sozialak besteak beste, aipatzen dira honen arduradun gisa. Orokorrean individualismoaren garaian bizi garela uste dute eta gazteek ere horrela jokatzeko dutela beren egunerokoan, norberarena dena defendatu eta besteena alde batera utzita gurea oztopatzen badu, honek elkartasuna eta talde kohesioa guztiz zailtzen duelarik.

Zentzu honetan, azken urteetan gazteen diskurtsoetan aldaketa bat nabarmendu dute, muturreko diskurtsoen gorakada bat egon delarik. Batez ere genero berdintasunaren gaiarekin ikusi da azken hau, gehien bat mutil gazteek feminismoarekiko jarrera abertsiboa adierazi baitute azkenaldian, azken hamarkadan asko landu den gaia izan da eta hipotesietako bat kontrako efektua lortu izana da. Honen aurrean postura ezberdinak egon dira eztabaidan, alde batetik kontrako jarrera horiek sentsibilizazio fasearen parte izan daitezkeela defendatzen zen, non, mezua jasotzen ari zela adierazten duen, hau beharrezkoa izanik hurrengo pausoak emateko. Eta bestalde, zalantzan jartzen zen orain arte egindako lana, ez baita itxaroten zen helburua lortu eta gazteengan erruduntasun sentimenduak sustatu baitira.

“Zerbait agian ez dugu ongi egin lortu nahi genuenaren kontrakoa lortu badugu.”

Honen aurrean erronka feminismoa guztion kontua dela erakustea da, guztion onura bilatzen duela, eta kasu honetan mutilak konplize potentzialak direla argitzea eta ez delitugileak. Eta esperientzia honetatik ikasita arrazakeriaren gaira ere aplikatu daitekeela uste dute, prebentzioan eta hezkuntzan fokua jarritz, eta gatatzaren

kudeaketarako tresnak emanez. Zehazki erreferente eta eredu berriak beharrezkoak direla aipatzen dute, aniztasun hau irudikatuko dutenak.

“Lanketa oso modu positibo batean egin behar da, balioa emanez eta modu prebentibo batean, benetan pisu bat emanez eta ahalduz modu aktibo batean eredu zehatzekin.”

“Prebentzioa ere garrantzitsua da, batzuetan agian ez ditugulako nahikoa baliabide egoerei aurre egiteko. Hor agian modelo eta erreferenteak landu daitezke, espazioa egokituz dibertsitateak porrot egin ez dezan.”

Jatorri atzerritarreko eta etnikoko ikasleen egoera

Jatorri atzerritarreko eta etnikoko ikasleen egoerari begira, hezkuntza sistema oraindik ere asimilazioan oinarritzen dela hartzen dute abiapuntutzat, eta beraz, maiz beren jatorrizko identitate kulturala eta bertakoen artean aukeratzera behartuak izaten direla antzematen dute, balioan jartzen dena bertakoa izanik. Zentzu honetan, identitate anitz edo askotarikoen defentsa egitea ezinbestekotzat hartzen dute parte hartzaileek, ikasle hauen pertenezkiak askotarikoak izan daitezkeela onartuz eta identitateengan ere aniztasun hau ospatuz. Horrela, askotan ikasle hauei bertako sentitu eta izateko eskubidea urratzen zaiela antzematen dute, eta beraz, bertako kulturarekiko

identifikazioa ere ukatzen zaiela, monokuturalak bagina bezala. Honek guztiak eragin handia du etorkizunean sortuko den gizartearen pentsatzerakoan.

Askotan errepikatzen da: “ulertzen zaitugu eta adeitsuak gara zure kulturarekiko, baina, ez zara hemengoa”.

Horrela, behar beharrezkoa ikusten dute ikasle hauen ahalduzkoa sustatzea, autodefentsatik eta beraien identitate eta erreferenteak indartzetik. Aldi berean, gakoa izango litzake nerabe hauek arrazakeriaren inguruko kontzientzia hartzea, erasoak identifikatzeko gaitasuna izan dezaten eta zentzu honetan autodefentsa eta ahalduzkoa bultzatuz.

Hezkuntzaren papera eta hezkuntza anti arrazista

Honen aurrean hezkuntza zentroen papera ezinbestekoa da, izan ere, esaterako Bigarren Hezkuntzako edukiei garrantzia gehiegi emateak, arrazakeria eta aniztasuna bezalako ardatzak lantzea oztopatzen du, eta lantzen den kasuetan modu puntualean eta askotan erreparazioa orduak erabiltzen dira horretarako, testuinguru batetik kanpo, modu “hotz” batean eta irakasleek gaiak prestatzeko denbora asko izan gabe. Gainera, ez da kurrikulumaren parte izaten, irakasle edota profesional bakoitzaren sentsibilitate eta lehentasunen arabera izaten da gai hau lantzeko arazoia azkenean.

“Etortzen dira eta ematen dizute agian saioa baino ordu erdi lehenago orientatzaileak prestatutako saioa klasean lantzeko (...). Gauza batzuk oso sakonak dira eta ezin duzu hotzean prestatutzarik gabe landu ezta ere. Gainera, ikasleek badakite ez dela notarako, eta kalifikatzen ez bada ez dauka garrantziarik etab.”

Hasteko, ikastetxeetan erabiltzen diren testu liburuetatik haratago joatea gakoa dela aipatzen da, bertan dagoen informazioa mugatua eta oso bideratua baita, eta askotan profesionalen lana errazten duten arren, eduki asko sesgatu eta mugatuak izaten dira. Gainera, berriz aipatzen da aniztasunaren errepresentazio falta bat dagoela ikastetxeetan, bai erreferente faltari dagokionean (aipatzen diren autoreei begira, lantzen diren ereduak, etnozentrismoan oinarritutako edukiak, etab.), baita irakasle plantillari dagokionean ere;

“Ez zaizue iruditzen irakasleak ere guztiak nahiko antzekoak garelako? maila sozioekonomiko, azal kolore eta jatorri antzekoak ditugu... Gauza bera antzematen da guraso elkarrekin ere, zein guraso mota izaten dira guraso elkarrekin parte”

Horrela, ikasle zein irakasleen formakuntza beharrezkoa ikusten dute, momentu eta gertakarietara egokitutakoa, arrazakeriaren oinarriak eta kulturartekotasunaren gakoak ulertu eta barneratu ditzaten. Egunerokoan lantzeko gaia dela azpimarratzen da, eta eskolatik aterata ere landu daitekeena, familiekin, besteak beste.

Hain zuzen, formakuntza, baliabide eta ezagutza falta honek beldurra eragiten du maiz irakasleengan, hezkuntza antiarrazista bat planteatzen den momentuan. Beste batzuek mehatxutzat ere ikusi izan dute, norbere lana zalantza jarriko balu bezala. Zentzu honetan, ezinbestekoa ikusten dute beste profesionalekin elkarlean aritzea, baita, espezialista eta adituak ikastetxean bertan egotea esku hartze integral bat egin ahal izateko.

“Irakasleak ez zarete izan behar guztiaren espezialistak. Komunitatean egin behar da lan, benetan dakien jendearekin eta egoerak kudeatzeko gai diren profesionalekin elkarlanean (...). Komunitatearekin konexio handia falta da zentzu horretan”.

Gizartean dauden desberdintasunez jabetu eta kontziente izan behar dute, beren ikasleengan eman daitezkeen desberdinkeriak ulertu eta lan mekanismoak honen arabera sortzeko, ekitatea ardatz izanda. Sentsibilizazioa, beraz, oinarritzkoa da, normalizatuta ditugun jokabide arrazistak identifikatu eta iraultzeko. Zentzu honetan, irakasleek hezitzaile papera berreskuratzea ezinbestekoa dela deritzote, edukiez haratago ikasleak heztea baita haien lana.

Ikasleei dagokienez, elkarrizketa eta eztabaidarako gune seguruak sortu behar direla aipatzen dute parte hartzaileek, kulturartekotasuna eta begirada antiarrazista ere foku izanda. Horrek ikasleek gaiaz beldurrik gabe mintzatzeko aukera emango luke eta akaso beren esperientziak partekatzeo aukera ere izan daiteke.

“Berbalizatu arte askotan ez gara kontziente zenbateko motxila dugun.”

Horrela, ezinbestekoa ikusten dute ikasleak arrazakeriaren inguruan sentsibilizatzea, askotan ez baitira erasoak gertatzen direnean identifikatzeko gai eta soilik eraso fisikoekin harremanen baitute, eta identifikatzen dutenean, ez dakite nola lagundu edo salatu ere.

Zehazki hainbat proposamen atera dira ikasleekin gaia lantzeko: sentsibilizazio kanpainak eta bideoak erabili ikasleen pentsamendu kritikoa sustatzeko (adibidez, Pareu de pararme perfil etnikoagatik egiten diren geldialdiengatik), erreferenteak ekarri ikasgelara, elkarriketak egin aniztasuna ezagutzeko, kulturarteko kontaktua sustatu, komunikabideetako albisteak ikasgelara eramane eta aztertu, etab.

“Gauza xumeekin gauza asko landu daitezke, irakasleek ere erabili ditzakete material hauek beraien egunerokoan.”

Eskolaz kanpoko agenteak eta sentsibilizazio tailerrak

Zentzu berean eta SOS Arrazakeria bezalako erakundeei begira, eskolaz kanpoko agente eta erakundeek eskolan duten paperaren inguruan jardun gara, honen zentzua, erabilgarritasuna eta garrantzia eztabaidan jartzeko.

Abiapuntu gisa parte hartzaileak ados daude kanpoko agenteen eta eskolaren arteko harremanak oso positiboak direla ikastetxetik komunitatera irekitzeko, bai hirugarren sektoreko erakundeekin, baita auzo elkarteekin, edota inguruko pertsona eta elkarteekin. Zehazki arlo sozialean eta sentsibilizazioan ibiltzen diren erakundeek “hankak lurrean jartzeko” balio diote eskolari, errealitatea eskolara gerturatzeko eta nolabaiteko fiskalizazioa bermatzeko zenbait gairekin. Eta askotan erresistentziak dauden arren egiten jarraitu beharreko lana dela uste dute hezkuntza sistema aberasten jarraitu dadin.

Aldi berean, horrek ezin du eskola ardurarik ez hartzera eraman, hots, ikastetxe barruan kultura bat sortzea beharrezkoa da, zeharkakoa dena eta ez duena kanpoko eragileengan uzten zenbait gai lantzea eta bere ikasle eta profesionalakiko sentsibilizazioa. Maiz ikastetxeko arazoan soluzio ikusten baitira erakunde hauek, baina eztabaida saioko kideek hau ezinezko ikusten dute ez badago eskolaren konpromezurik eta profesional guztien arteko elkarlanik. Gainera, hainbat ikastetxeetan posizio bat hartzeko eta beren burua balore eta ideia batzuekin izendatzeko beldurra dagoela igarri izan dute, feminista, antiarrazista, ekosozialak izango direla adieraztea, jendearen bazterketaren beldur haien ustez.

“Ikastetxearen zehar lerro gisa anti arrazismoa adieraziko balitz jendeak jakingo luke eta prest egongo litzake aldaketak sustatzera, inplikazioa handituko litzake.”

Gaur egun egiten diren esku hartzei begira, batez ere gai zehatzen inguruan sentsibilizatzeko egiten diren tailerrei dagokionez, orokorrean aurreko ideia

berdina errepikatzen da, elkarlanean egin beharreko zerbait dela eraginkorra izan dadin. Tailer solteek askotan testuinguru falta bat dutela, eskola eta ikasgela ezagutu gabe zaila dela eraginkorra izatea, horregatik, ezinbestekoa da aurre planifikazioa eta aurre-lanketa.

“Horrelako tailerrak ematera etortzen direnean, askotan dut sentsazioa dela zerbait “extraeskolarra” izango balitz bezala eta etortzen direla, ematen dutela beraien tailerra eta ez diogula ematen behar duen garrantzia. (...) Formakuntza hauen jarraipen handiago bat egin beharko litzateke eta horrek irakasleen inplikazio handiagoa eskatzen du.”

Bestalde, irakasleen inplikazioa, interesa edo interes falta aipatzen da hemen, funtsezkoa da tailerretan lantzen den edukiari jarraipena ematea, beren ikasleen jarrerak, zalantzak eta beldurrak ezagutzeko; ordea maizegi irakaslearen interes falta batekin egiten dute topo eta horrek eskolaz kanpoko jardueratzat hartzea eragiten

du, garrantzia kentzea, ez bakarrik tailerrari berari, baizik eta landutako gaiari ere. Honetan, eragin handia du irakasleen estabilitate urriak, etengabeko errotazioak, egonkortasun ezak eta ikasle kopuruagatik hauen ezagutza faltak; horregatik, konpromezu instituzionalaren garrantzian insistitzen dute.

“Irakasleek beraien ematen dien garrantziaren arabera, ikasleek ere garrantzi hori emango die horrelako tailer eta formakuntzei.”

Bestelako proposamenak

Bukatzeke, gazteen beraien ahotsa entzutea proposatzen dute parte hartzaileek, gai hauen inguruan protagonisten ikuspuntua ezagutzea ezinbestekoa delako. Gainera, hezkuntza sistematik pasatu diren ikasle migratu edota jatorri etniko minorizatuen esperientziak eta iritzi eta ikuspuntuak ezagutu eta jasotzea interesgarria litzake, benetan hobekuntzak egin nahi badira norabide egokia hartzeko.

Ondorioak

5



Gaur egungo jendartean eta eskoletan ere, espazio eta dinamika inklusiboak sortzeko beharraren inguruko kontzientzia geroz eta handiagoa dela agerikoa da, aniztasuna errespetatzekoa, baita jarrera diskriminatzaileak salatu eta deuseztatzekoa ere. Hala ere, hau ez da beti ikastetxeen egunerokotasunean islatzen den zerbait: ikasle, heldu eta profesionalen arteko jarrera diskriminatzaileak ohikoak dira eta ez dira beti argitasun eta erabakiz abordatzen.

Izan ere, ikusi den bezala, eskola testuinguruan ere diskriminazio eta arrazakeriak forma ezberdinak hartzen ditu eta ez da beti erraz identifikatzen, zeharkakoa denean adibidez edo itxurazko neutraltasun baten pean ageri denean. Gainera, askotan modu sutiletan aurkezten da, ikasle bat ez aipatzean, ignoratzean, txantxak egitean, botere harremanen bidezko interakzioak daudenean, etab. Askotan balioa kentzen zaien arren, diskriminazio ekintza hauek ekintza desegokien espiral bat pizteko gaitasuna dute, eskola testuinguruan gainontzeko ikasleek eta irakasleek ere imitatzen iritsi daitezkeenak. Diskriminazio jarreretara esposizioak, berezko duen

injustiziaz gain, ikasleriarengan ondorio suntsitzaileak ditu, besteak beste diskriminazio egoerak normalizatu eta ikasle eta irakasleek berau errekonozitzeko gaitasuna galtzea eragin dezaketelarik.

Izan ere emaitzek erakutsi dutenez, ikasle zein irakasleek arrazakeria eta diskriminazioa identifikatzeko zailtasunak dituzte eta honek berau salatzeke eta aurre egiteko aukerak erabat gutxitzen ditu.

Hortaz, aniztasuna agerikoa den arren, esan daiteke gizartea oraindik ez dela nahi genukeen bezain inklusiboa, parekidea, kulturartekoa, ekitatiboa, sozialki justua, etab. Hauek guztiak epe luzerako helburuak dira eta eskola horiek lortzeko tresna izan liteke, baina horretarako balioak ikaskuntza prozesuan barnertzea ezinbestekoa da, ezagutza arloa ezberdinak giza eskubideen defentsatik eta diskriminazio eta bazterkeriaren ukatzetik ulertzeko. Honek kurrikulumaren errebisio kritikoa exigitzen du, baita hezkuntza praktikak zalantzan jarri ditzakeen autokritika jarduera bat ere. Gainera, eskola parekidea eraiki nahi bada, ezinbestekoa

da ikasleengan ere zapalkuntza ardatz ezberdinek duten eragina ulertzea, jatorriaz haratago, klaseak, generoak eta beste zapalkuntza ardatzek non kokatzen dituzten kontziente izatea ezinbestekoa da; eskola komunitatearen aniztasuna onartu eta auto analisi kritiko batetik eta modu parekide batetik eraikitzea. Eskolak norabide eraldatzailea izan behar du, eskola barruan dauden desparekotasunak kudeatzeaz gain, ikasleen errealitaetaren ulermen kritikoa sustatuko duena eta pertsonak gaituko dituen beren ingurune sozialean modu arduratsu eta justuan jokatu dezaten.

Hala ere, badakigu eskola ez dela ahalguztiduna, kanpo faktoreek eragin handia dute ere eskolan gertatzen den horretan. Hor daude ikasleek kontsumitzen dituzten produktu kulturalak, eskolaz kanpoko jarduerak, beren gizarte ingurunea, eta aipatutako diskriminazio ardatzak, besteak beste. Hain zuzen horregatik ezinbestekoa da errealitate horrekiko begirada kritikoa sustatzea, jendarte osoaren arduraz kontzientzia sortzea eta egoera hauek iraultzeko tresnak ematea.

Iturri bibliografikoak



- EducaBase. (2022). *Alumnado extranjero por titularidad/financiación, comunidad autónoma/provincia y área geográfica de nacionalidad*. Ministerio de Educación y Formación Profesional. Gobierno de España. http://estadisticas.mecd.gob.es/EducaJaxiPx/Datos.htm?path=/no-universitaria/alumnado/matriculado/2020-2021-rd/extran//l0/&file=extran_02.px&type=pcaxis
- Bazzaco, E., García Juanatey, A., Palacios, A. & Tarragona, L. (2017). ¿Es odio? *Manual práctico para reconocer y actuar frente a discursos y delitos de odio*. Institut de Drets Humans de Catalunya y SOS Racisme. Recuperado de: http://www.sosracisme.org/wp-content/uploads/2018/01/ES_ODIO___Manual_practico_v3_web.pdf
- Bravo, P. C., & Moreno, P. V. (2007). La interiorización de los estereotipos de género en jóvenes y adolescentes. *Revista de investigación educativa*, 25(1), 35-38.
- Carapello, R. (2020). O racismo camuflado pelo Bullying. *Revista Educação-UNG-Ser*, 15(1), 171-178.
- CEDRE. (2020). *Percepción de la discriminación por origen racial o étnico por parte de sus potenciales víctimas en 2020*. Gobierno de España Ministerio de igualdad. Recuperado de: <https://igualdadynodiscriminacion.igualdad.gob.es/destacados/estudiopercepcion.htm>
- CIS. (2016). *Estudio nº3150 Percepción de la discriminación en España (II)*. Recuperado de: https://www.cis.es/cis/opencm/ES/1_encuestas/estudios/ver.jsp?estudio=14295
- Dovidio, J. F., Hewstone, M., Glick, P., & Esses, V. M. (2010). *Prejudice, stereotyping and discrimination: Theoretical and empirical overview. Prejudice, stereotyping and discrimination*, 3-28.
- Europako Batzordea. (2019). *Eurobarómetro Especial 493*. La discriminación en la UE. Recuperado de: <https://europa.eu/eurobarometer/surveys/detail/2251>
- Ferrer, Á. eta Gortazar, L. (2021). *Diversidad y libertad Reducir la segregación escolar respetando la capacidad de elección de centro*. EsadeEcPol eta Save the Children. Recuperado de: <https://www.esade.edu/ecpol/es/publicaciones/segregacion-escolar-esadeecpol/>
- Etxeberria, F., Karrera, I. & Murua, H. (2010). Competencias interculturales del profesorado con alumnado inmigrante en el País Vasco. *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 13(4), 79-94.
- Eusko Jaurlaritzza, Hezkuntza Saila (2015). Heziberri 2020. *Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa*.
- Eusko Jaurlaritzza, Hezkuntza Saila (2016). *2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana*.
- Eusko Jaurlaritzza, Hezkuntza Saila (2019). EAE-ko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetza-plana, berdintasunaren eta tratuan bidean 2019-2023.
- Eusko Jaurlaritzza, Hezkuntza Saila (2019). *Eskola inklusiboa. Garatzeko esparru-plana 2019-2022*.
- Eusko Jaurlaritzza, Hezkuntza Saila (2019). *Harrera-plana. Ikasle berrien eta haien familien harrera bideratzeko jardunbideak. Ikastetxeetarako gida praktikoa 2019-2020*.
- Eusko Jaurlaritzza, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (2022). *(H)ABIAN 2030, Gizarte eraldaketarako hezkuntzaren estrategia*. Recuperado de: https://www.elankidetz.euskadi.eus/contenidos/informacion/inf_habian/es_def/adjuntos/H-ABIAN_2030.pdf
- Fouassier, M. (2017). La diversidad en las aulas: voces desde la educación. En J. A. Oleaga. (Ed.), *La diversidad infantil y juvenil en la CAE. Las (mal llamadas) segundas generaciones* (pp. 145-272). Bilbao, España: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco. Recuperado de: https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigacion/es/diversidad_infantil/Diversidad_infantil_juvenil_CAE.pdf
- Fox, S., eta Stallworth, L. E. (2005). Racial/ethnic bullying: Exploring links between bullying and racism in the US workplace. *Journal of vocational behavior*, 66(3), 438-456.
- Fundación Anar. (2018). *III Estudio sobre acoso escolar y cyberbullying*. Recuperado de: <https://www.anar.org/wp-content/uploads/2021/12/III-Estudio-sobre-acoso-escolar-y-ciberbullying-segu%CC%81n-los-afectados-1.pdf>
- Fundación Secretariado Gitano. (2010). *Informe anual 2010. Discriminación y comunidad gitana*. Recuperado de: https://www.gitanos.org/publicaciones/discriminacion10/Informe_Discriminacion_2010_FINAL.pdf
- García, A., Miranda, L., Steible, B., Díaz, A. eta Sueiro, N. (2020). *El extremismo de derecha entre la juventud española: situación actual y perspectivas*. Instituto de la Juventud. Gobierno de España.
- Garmendia, M., Jiménez, E., Casado, M.A. eta Mascheroni, G. (2016). *Riesgos y oportunidades en internet y uso de dispositivos móviles entre menores españoles (2010-2015)*. Madrid: Red.es/Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
- Ikuspegi (2017). *Haur eta gazteen aniztasuna EAEn. (Oker izendatutako) bigarren belaunaldiak*.
- Ikuspegi (2018). *Atzeritar jatorriko eskolatzea EAEko eskola-sisteman*.

- Ikuspegi (2021). *Evolución de la población de origen extranjero en la CAE, por TT. HH. Y sexo. 1998 – 2021*.
- Monks, C., Rodríguez, A. J. eta Ortega, R. (2003). The Psychological Nature of Social Exclusion for Cultural Reasons. En *The UNESCO Conference on Intercultural Education*. UNESCO, Jyväskylä, Finlandia.
- Margulis, M., eta Urresti, M. (1999). *La segregación negada: cultura y discriminación social*. Editorial Biblos.
- Mayoral Peñas, M., Jiménez Blasco, B. C., Sassano Luiz, S., eta Resino García, R. (2020). Inmigración y educación: experiencias de discriminación en la Comunidad de Madrid. *Espacio Tiempo y Forma. Serie VI, Geografía*, (13), 191–214.
<https://doi.org/10.5944/etfvi.13.2020.26259>
- ONU (2021eko abuztuak 6). *Los jóvenes están en la vanguardia de la lucha contra la discriminación racial*. Naciones Unidas Derechos Humanos Alto Comisionado. Recuperado de: <https://www.ohchr.org/es/stories/2021/08/young-people-are-forefront-fight-against-racial-discrimination>
- Plaza Casares, S. (2019ko irailaren 8a). Racismo en la escuela: asignatura pendiente. *El Salto*. <https://www.elsaltodiario.com/educacion/racismo-escuela-asignatura-pendiente>
- Rojas, J. M. R., Pezzia, A. E., eta Magallanes, J. M. (2011). Analizando el prejuicio: bases ideológicas del racismo, el sexismo y la homofobia en una muestra de habitantes de la ciudad de Lima-Perú. *Revista Psicología Política*, 11(22), 225-246.
- Save the Children (2018). *Mézclate conmigo. De la segregación socioeconómica a la educación inclusiva*. Recuperado de: <https://www.savethechildren.es/publicaciones/mezclate-conmigo>
- Save the Children (2018). *Mézclate conmigo. De la segregación socioeconómica a la educación inclusiva*. ANEXO Euskadi. <https://www.savethechildren.es/notasprensa/informe-mezclate-conmigo-de-la-segregacion-socioeconomica-la-educacion-inclusiva-euskadi>
- SOS Racismo Madrid. *Glosario de conceptos antirracistas*. Recuperado de, <https://www.sosracismomadrid.es/glosario-de-conceptos-antirracistas/#R>
- Statista (2020). *Porcentaje por edad de usuarios de redes sociales en 2020*. Recuperado de: <https://es.statista.com/estadisticas/1260093/redes-sociales-porcentaje-de-usuarios-por-edad-en-espana/>
- Tajfel, Henri, eta Forgas, Joseph (1981). *Social Categorization: Cognitions, Values and Groups*. Em Joseph Forgas (Ed.), *Social Cognition* (pp. 113-140). London: Academy Press.
- Tajfel, H., eta Turner, J. C. (2004). The Social Identity Theory of Intergroup Behavior. In J. T. Jost & J. Sidanius (Eds.), *Political psychology: Key readings* (pp. 276–293). Psychology Press.
- Tudela, P., Ballesteros, J.C., Rubio, A. eta Sanmartín, A. (2020). Barómetro juvenil 2019. *Discriminación y tolerancia hacia la diversidad*. Madrid: Centro Reina Sofía sobre Adolescencia y Juventud.
- Tepper, B. J. (2000). Consequences of abusive supervision. *Academy of Management Journal*, 43, 178–190.
- Unesco (1995). *Declaración de Principios sobre la Tolerancia*. Recuperado de: https://www.oas.org/dil/esp/afrodescendientes_instrumentos_internacionales_Declaracion_Principios_Tolerancia_UNESCO.pdf
- Uranga, B. (2021). Gipuzkoako hizkuntzen mapa: hizkuntza-aniztasunaren azterketa, euskara biziberritzearen testuinguruan. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 2(65), 579-604.
- Váradi, L., Barna, I. eta Németh, R. (2021). Whose Norms, Whose Prejudice? The dynamics of perceived group norms and prejudice in new secondary school classes. *Frontiers in Psychology*, 3621.
- Wachs, S., Wettstein, A., Bilz, L. eta Gámez-Guadix, M. (2022). Motivos del discurso de odio en la adolescencia y su relación con las normas sociales. *Comunicar*, 71, 9-20.
- Wachs, S., eta Wright, M. (2018). Associations between Bystanders and Perpetrators of Online Hate: The Moderating Role of Toxic Online Disinhibition. *International Journal of Environmental Research and Public Health*, 15(9), 2030.

ERANSKINA 1.

Zentroko hezkuntza komunitateari zuzendutako elkarrizketa erdi-egituratua

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lankidetzeta, Gazteria
eta Kirol Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Deportes



Hezkuntzari Bira Kanpora Begira

Departamento de educación de SOS Racismo



1. Fase Soziala

A. Aurkezpena

- Elkarrizketa honen zergaitia adierazi
- Gure ikerketaren ildoak zein den azalduta
- Bere errola elkarrizketan zein izango den › Zentroaren ordezkari izatea

B. Galdera pertsonalak

- Zenbat denbora daramakizu eskola honetan lanean?
- Zein da zure funtzioa edo errola ikastetxearen baitan?
- Aurrez beste ikastetxeren batean lan egin duzu? Zeinetan?

C. Ikastetxearen inguruko galdera

- Zein da ikastetxeko ikasle eta irakasle kopurua?
- Zein hizkuntza nagusitzen da ikastetxean?
- Jatorri eta kulturari erreparatuta eskola anitza dela esango zenuke?
- Zein da aniztasun honekiko jarrera (ikasle zein irakaslearen aldetik)? Lantzen al da?



2. Gatazka/ arrazakeria

- ¿Zein modutan iruditzen zaizu azaleratzen dela arrazakeria hezkuntza testuinguruan?
- Eta zure ikastetxean zehazki?
- Ikusi al duzu arrazarekin edo kulturarekin lotutako gertakari gatazkatsurik ikastetxe honetan edo lan egin duzun beste ikastetxeren batean? (Ikasleen artean, familiekin, irakasleen artean)
 - Bai › Nolakoa izan den hezkuntza-komunitatearen eta inplikaturako alderdien erantzuna? Zein baliabide dituzue eta zein neurri jarri dira martxan?
 - Ez › Horrelako gatazkarik izatekotan nolakoa uste duzu litzatekeela hezkuntza-komunitatearen eta inplikaturako alderdien erantzuna? Zein baliabide dituzue eta zein neurriko lirateke martxan
- Irakaslegoa arrazismoa zer den eta bera identifikatzeko gai dela esango zenuke?



3. Behar ezberdinak (ezagutza, materiala, pertsonala...)

- Eskolan arrazismoa eta kultur aniztasuna lantzea garrantzitsua dela uste duzu? Zergatik?
- Gelan lantzen al dituzue antiarrazismoarekin loturiko gaiak? Nola?
- Zure ustez, hezkuntza-komunitateak (irakasleak, orientazioa, zuzendaritza, ikastetxeko beste langile batzuk) ba al ditu ikasgelan arrazakeria lantzeko beharrezkoak diren ezagutzak eta materialak?
 - Bai › Zeintzuk? Nahikoa direla esango zenuke?
 - Ez › Zein dira falta diren edo beharrezkotzat jotzen dituzun baliabideak?
- Gaiari buruzko ezagutza espezifikoak dituen figura profesional bat egotea beharrezkotzat jotzen duzu? Zergatik?



4. Familiak

- Nola bizi dute eskolako familiek aniztasun kultural hau? Nolakoa da honekin duten erlazioa?
- Nolakoa da eskolak jatorri ezberdineko familiekin duen harremana?
- Zer neurri hartzen dira jatorri ezberdineko familia baten etorreraren aurrean? Nolakoa da bere ikaslearen harrera?
- Ba al da harreraren harira nolabaiteko protokolorik?



Beste zerbait?

ERANSKINA 2.

Ikasleei zuzendutako galdetegi mistoak



Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Deportes



Hezkuntzari Bira Kanpora Begira
Departamento de educación de SOS Racismo

SOS Arrazakeriaren galdetegia

Gaurko data

Ikaslearen datu pertsonalak:

Ikastetxea: _____

Adina: _____ Sexua: Emakumea // Gizona // Ez binarioa

Herria: _____ Probintzia: _____ Kutso / maila: _____

1. Ondorengo esaldi hauek baloratu adierazten duten ARRAZAKERIA mailaren arabera. Arrazista iruditzen zaizu?. (1) Ez da batere arrazista (2) Pixka bat arrazista (3) Neutrala (4) Nahiko arrazista (5) Guztiz arrazista da

	1	2	3	4	5
Kanpotik datozen pertsona guztiak lapurretara datozela pentsatzea					
Arrazari, kulturari edo nazionalitateari buruzko aurreiritzietan oinarritutako zenbait txiste egitea.					
Ikaskideren bati patioko jolasetan parte hartzen ez uztea, arraza, kultura edo nazionalitate desberdinekoa delako.					
Ikaskideren bat iraintzea, bere arraza, kultura edo nazionalitatearengatik					
Pertsoneri buruzko orokortzeak/generalizazioak egitea, arrazaren, kulturaren edo nazionalitatearen arabera					
Pertsona batekiko jarrera hurbilagoa edo lagunkoiagoa izatea, arrazaren, kulturaren edo nazionalitatearen arabera					
Kanpotik datozen pertsona guztiak laguntzetaz baliatzera datozela sinestea.					
Kontuan hartzea pertsona batek heziketa gutxiago duela beste herrialde batetik etortzeagatik edo beste kultura batekoa izateagatik.					
Pertsona batek bere arrazaren, kulturaren edo nazionalitatearen arabera laguntza gehiago behar duela pentsatzea.					

2. Zure familiako kideek jokabide arrazistak dituztela uste duzu?

Inoiz	Gutxitan	Batzuetan	Maiz	Oso maiz

3. Zure ikaskideek jokabide arrazistak dituztela uste duzu?

Inoiz	Gutxitan	Batzuetan	Maiz	Oso maiz

4. Zure irakasleek jokabide arrazistak dituztela uste duzu?

Inoiz	Gutxitan	Batzuetan	Maiz	Oso maiz

5. Jokabide arrazistak dituzula uste duzu?

Inoiz	Gutxitan	Batzuetan	Maiz	Oso maiz

6. Ikusi izan al duzu institutuan ondorengo egoerarik?

Adieraz ezazu X batekin

- Bere arraza, kultura edo nazionalitateagatik norbait desberdin tratatzea.
- Norbait baztertu edo isolatzea arraza, kultura edo nazionalitate desberdinekoa izateagatik.
- Beste pertsona baten inguruan zurrumurrak egotea, haren arrazari, kulturari edo nazionalitatean oinarrituta.
- Norbait fisikoki erasotzea arraza, kultura edo nazionalitateagatik.
- Bromak, burla edo norbait insultatzea bere arraza, kultura edo nazionalitateagatik.
- Nire institutuan EZ dut egoera arrazistarik ikusi.

7. Jasan izan al duzu ZUK institutuan ondorengo egoerarik?

Adieraz ezazu X batekin

- Zure arraza, kultura edo nazionalitateagatik desberdin tratatua izatea.
- Gainontzekoek zu baztertu edo isolatzea arraza, kultura edo nazionalitate desberdinekoa izateagatik.
- Zure inguruan zurrumurrak entzutea, zure arraza, kultura edo nazionalitatean oinarrituta.
- Zu zeu fisikoki erasotzea zure arraza, kultura edo nazionalitatean oinarrituta.
- Bromak jasotzea zure arraza, kultura edo nazionalitateagatik.
- Nire institutuan EZ dut egoera arrazistarik jasan.

8. Zure ustez, ekintza hauetatik zeinek prebenitu ditzake eraso arrazistak?

3 aukeratu

- Ikastetxe eta institutuetan tailer anti-arrazistak ematea
- Arraza, kultura edo nazionalitate ezberdina izanda ere, guztiok berdinak garela pentsatzea
- Arrazismoa zuzenean jasaten duten pertsonen entzun eta honen harira jokatzeko
- Komunikabide fidagarrietan arrazismoaren gaur egungo egoraren inguruan informatzea
- Inor ez mintzeko, arrazismoaren inguruan ez hitz egitea
- Arrazismoaren eta kulturantzatasunaren inguruko sentsibilizazio kanpainak egitea
- Ez da beharrezkoa ezer egitea
- Beste neurri batzuk: _____

9. Zure ustez, zer egin beharko litzateke zure ikastetxean gertatzen diren egoera arrazistei aurre egiteko?

10. Eta zuk, zer egin dezakezu arrazakeria ekiditzeko?

ERANSKINA 3.

Eztabaida taldea gidoia

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lankidetzeta, Gazteria
eta Kirol Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Deportes



Hezkuntzari Bira Kanpora Begira
Departamento de educación de SOS Racismo



Eguna

Maiatzak 26, 17:30-19:30



Iraupena

13:30 - 14:30



Parte hartzaileak

Zortzi (gehienez)



Metodologia

Eztabaida taldea informazio lortzeko metodo kualitatiboa da, talde elkarrizketaren bidez parte hartzaileen pertzeptzio, ezagutza eta ikuspuntuak ezagutzen laguntzen diguna. Metodologia honen bidez, parte hartzaile guztien artean gure gaiari lotutako ezagutza kolektiboa eraikitzea bilatzen dugu.



Helburuak

Bigarren hezkuntzan arrazakeriaren aurkako material didaktiko berria sortzeko hezkuntza komunitatearen parte diren kideek gaiaren inguruan duten ezagutza eta ikuspuntua ezagutzea.

- Gaur egungo bigarren hezkuntzako ikastetxeen errealitatea ezagutzea, aniztasun kulturala eta arrazakeriari dagokionez.
- Gaztaro eta nerabezaroan arrazakeria eta diskriminazioaren nondik norakoak ezagutzea
- Irakasleen formakuntza maila eta beharrak ezagutzea
- Ikasle zein irakasleekin gaia lantzeko proposamen zehatzak mahaigaineratu eta baloratzea ardatz komunetatik



Gidoia

A. Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeak eta aniztasun kulturala: erronka eta behar nagusiak

Zuen ikuspegi eta ezagutzatik, zeintzuk uste duzue direla bigarren hezkuntzako ikastetxeek aniztasun kulturalaren aurrean dituzten erronka eta behar nagusiak gaur egun?

B. Gazteria eta arrazakeria:

Nola azaleratzen da arrazakeria gaur egungo gazteengan?
Uste duzue arrazakeriarekiko sentsibilizatuta daudela? Eboluzio edo aldaketarik ikusi duzue azken urteetan?
Eta gorroto diskurtsoei dagokienez?
Zein indargune edo aukera aurkezten dituzte ikasle gazteek horrelako gaiak jorratzerako orduan?
Nola uste duzue landu beharko litzakeela arrazakeriarekiko sentsibilizazioa gazteekin? Nork egin beharko luke? Zein proposamen zehatz okurrizten zaizkigu? Zerk funtzionatzen du

C. Ikasle migratuak eta arrazializatuak

Zein da arrazializatuak diren edota jatorri/kultura/hizkuntza atzerritarreko ikasle gazteen egoera/jarrera?

D. Eskola arrazakeriaren aurrean:

Zein da eskolaren ardura arrazakeriaren eta kulturantzatasunaren aurrean?
Badaude protokoloak eraso arrazistak gertatzen diren kasuetarako? Nola erantzun beharko luke ikastetxeak?
Zer da zuentzat hezkuntza anti-arrazista? Nolakoa izan beharko luke DBH-ko ikastetxe batek anti-arrazista izateko?
Ze paper izan dezakete hirugarren sektoreko erakundeek?



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Kultura, Lanbideztza, Gazteria
eta Kirol Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Deportes